

Esparru Estrategia Unibertsitateak Euskadi Basque Country 2030



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Unibertsitateak + Euskadi

Basque Country

Esparru Estrategia 2030



Estrategia honek Euskal Hezkuntza-Sistemak Euskadiko eragile dinamizatzaile eta eraldatzaile gisa duen rola aitortzen, azpimarratzen eta bultzatzen du. Helburu nagusia eragileen plangintzarako eta jarduerarako esparru estrategiko bat eskaintzea da, nazioartekotzen lagunduko duen testuinguru bat garatzeko. Ekintzak garatzen dira honako hauek errazteko: ezagutza sortzea eta transferitzea, talentu eraldatzailea lankidetzaren esparru batean prestatzea, unibertsitatei eta ikerketa-zentroei laguntzea planen definizioan, baita nazioartekotzerako eraldaketara ere.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 6a

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	3
2. ESTRATEGIA BESTE PLAN BATZUEKIN BAT ETORTZEA	8
2.1. Europar Batasuna eta Euskadi	8
2.2. Nazioarteko Esparru Estrategia – Euskadi Basque Country 2025	10
2.3. Unibertsitate Sistemaren Plana 2023-2026	13
2.4. Hezkuntzarekin eta ikerketarekin lotutako beste plan batzuk	15
3. OZTOPOAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK BESTE UNIBERTSITATE-SISTEMA BATZUK NAZIOARTEKOTZEKO	16
4. UNIBERTSITATEAK + EUSKADI BASQUE COUNTRY 2030 ARKITEKTURA ETA PLANTEAMENDU ESTRATEGIKOA.....	19
4.1. Planaren arkitektura	19
4.2. Helburu estrategikoak.....	20
4.3. Nazioartekotzea, ikuspegi bikoitzetik	22
4.4. Jarduera-eremuak.....	23
4.5. Lehentasuneko geografiak	26
5. ESTRATEGIAREN HEDAPENA: GARATU BEHARREKO EKINTZAK, JARDUERA-EREMUAREN ETA IKUSPEGIAREN ARABERA	33
5.1. Prestakuntza – <i>Internationalization at Home</i>	33
5.2. Prestakuntza – <i>Internationalization at Large</i>	35
5.3. Ikerketa eta Transferentzia – <i>Internationalization at Home</i>	36
5.4. Ikerketa eta Transferentzia – <i>Internationalization at Large</i>	36
5.5. Unibertsitatea + Enpresa + Gizartea – <i>Internationalization at Home</i>	37
5.6. Unibertsitatea + Enpresa + Gizartea – <i>Internationalization at Large</i>	38
5.7. Nazioartekotzeko zeharkako beste ekintza batzuk.....	39
6. BESTE UNIBERTSITATE- ETA IKERKETA-SISTEMA BATZUEKIKO LANKIDETZA POTENTZIALAK.....	40
7. PLANAREN GOBERNANTZA	43
7.1. Eremu instituzionala/politikoa	43
7.2. Gobernantza-eredua	44
7.3. Jarraipen-sistema	45
ERANSKINAK.....	50
1. Eranskina. Akronimoen zerrenda.....	50
2. Eranskina. Erreferentziazko dokumentuak	50

1. TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA

1999. urtean, Europako hainbat herrialdek sinatutako *Bolognako Aderazpenak* hasiera eman zion orduan *Bolognako Plana* deitu zenari. Bateratze-prozesu horren helburu nagusiak bi ziren: herrialdeen arteko egresatuen trukea erraztea eta unibertsitate-ikasketen edukia merkatuaren eskarrietara egokitzea. Prozesu horretan, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua (GHEE) sortu zen, Europar Batasuneko hezkuntza-sistemak harmonizatzeko eta ikasle guztien artean truke-modu eraginkorra eskaintzeko, baita Europako unibertsitateek hasitako aldaketa-prozesuari aurrekaririk gabeko dimentsioa eta arintasuna emateko ere.

Mende laurden bat geroago, 49 herrialdek osatzen dute GHEE: EBko 27 herrialdeek eta Errusia eta Turkia herrialdeek, besteak beste. Europako hezkuntza-sistemak harmonizatzea funtsezko zeregina da oraindik ere Europako Batzordearentzat, eta helburu horrekin jarduera berriak proposatzen ditu etengabe.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Bolognako prozesuak modu erabakigarrian bultzatu du goi-mailako hezkuntzaren ikuspegi europarra, eta, Europako gainerako herrialdeetan bezala, harmonizazio-prozesuan sakontzen jarraitzeko beharrak bere horretan dirau.


Nazioarteko Esparru Estrategia – Euskadi Basque Country 2025 (aurrerantzean, *EBC 2025 Estrategia*) deiturikoan jasota dagoenez, prestakuntza da etorkizun lehiakor baterako atea zabaltzen dituen giltza. Horregatik, Euskadik hezkuntza-eredu argia eta hurbila garatzera bideratzen ditu bere ahaleginak, balioa eta kalitate-bermea emanez. Azken urteotan, Euskadik pertsonen talentua garatzeko apustua indartu egin du, eta kualifikazio eta prestakuntza handiko profesionalak sortu ditu, bai toki-mailan, bai nazioartean.

Horren erakusgarri da Lehendakaritzak bultzatutako herri-ekimena, *Euskadi Talent Estrategia*, Euskadiren 2040rako ikuspegiaren barruan. Estrategia horrek erakundeek talentuaren garapena, atxikipena eta erakarpena sustatzeko beharra partekatzen dutela aitortzen du, lehiakortasunaren erronka globalaren adibide gisa. Hala, sare bat garatzen ari da, aukera ematen duena, alde batetik, unibertsitate-tituludun guztiak Euskadiko beste profesional edo enpresa batzuekin harremanetan jartzeko, haien jatorria edozein dela ere. Bestalde, enpresei edo erakundeei aukera ematen die Euskadin nahiz munduko edozein tokitan lan egiten duten profesionalekin harremanetan jartzeko eta kontratazio-aukerak aztertzeko. Azken batean, talentua sortzea eta prestatzea eta enplegatzaileek talentua aurkitzea sustatzen da.

Horregatik, Hezkuntza Sailaren erronketako bat da Europako konbergentzia-prozesua eta bere eragileen nazioartekotzea bultzatzea, Europako hezkuntzaren ikuspegitik, “nazioartekotuta” eta “nazioartekotzailea”. Era berean, Euskal Hezkuntza Sistemak erreferente izan nahi du Europar Batasunean hezkuntza-maila guztietan, eta, horretarako, Euskal Hezkuntza Sistema osoan nazioartekotzen lagunduko duten jarduera-ildo nagusiak garatu eta gidatu behar dira.


Estrategia horrek unibertsitateek eta bikaintasuneko ikerketa-zentroek EBC markaren munduko enbaxadore gisa duten balioa aitortzen du. Nazioarteko lankidetzak unibertsitateko eragileen eta ezagutzaren izaeran eta helburuetan oinarritutako jardura da.

Euskal Unibertsitate Sistemako (aurrerantzean, EUS) unibertsitateek orain arte jardura esanguratsuak garatu dituzte nazioartean, eta horien artean nabarmentzekoak dira ikasleen mugikortasuna bultzatzea, nazioarteko programa akademiko bereziak, Europako Unibertsitate Partzuergoetan parte hartzea, Euskadiko atzerriko ordezkariak edo nazioarteko osagaia duen ikerketa-jardura. 1. irudian orain arte garatutako nazioartekotze-politikaren lorpen nagusiak erakusten dira, eta bertan nabarmentzekoak dira 2018ko nazioarteko unibertsitate-titulazioen aipamenak.



1. irudia: Euskal Unibertsitate Sistemaren bilakaera


2019-2022 Euskal Unibertsitate Sistemaren Plana (aurrerantzean, 2019-2022 USP) indarrean egon zen bitartean, nabarmen handitu zen ikasleen mugikortasuna bi norabideetan: alde batetik, urtean % 7,6 hazi zen atzerriko mugikortasun-programetan parte hartu zuten ikasleen kopurua, eta 2022an 4.500 izan ziren; eta, bestetik, EUSeko unibertsitateetan matriculatutako nazioarteko ikasleen kopurua 4.700 baino handiagoa izan zen eta % 3,2 hazi zen urtean (ikus 1. grafikoa). Datu horiek bereziki positiboak dira, kontuan hartuta pandemiak unibertsitateetan izandako eragina 2020an eta 2021ean.



1. grafikoa: IN & OUT ikasleen mugikortasunaren bilakaera 2019-2022 aldian (ikasle kopurua)

Aliantza berriak bilatzeari dagokionez, baterako titulazioak garatzeko lankidetzak hitzarmenak sinatu zituzten nazioarteko unibertsitateak 126 izan ziren, eta urtean %8 igo ziren 2019tik. Era berean, Erasmus Mundus masterren kopurua ia bikoiztu egin zen aldi horretan, 2019ko seitek 2022ko hamaikara.

Ikerketa-jarduerak ere bultzada handia izan du azken urteotan. Zehazki, nazioarteko ikertzaileek EUSera egindako lau astetik gorako egonaldiak laukoiztu egin dira lau urtetan, eta 165 izan dira 2022an. Gainera, nazioarteko Irakaskuntza eta Ikerkuntzako Pertsonalaren ehunekoa (aurrerantzean, IIP) irakasle eta ikertzaile guztien %4,5 izan zen 2022an, azken urteetako daturik onena: nazioarteko koargitalpen zientifikoetako parte-hartzea %6,8 hazi zen urtero, eta 2022an 2.517 izatera iritsi zen. Bestalde, nazioarteko 220 tesi defendatu ziren (ikus 2. grafikoa):




2. grafikoa: Nazioarteko koargitalpen zientifikoaren bilakaera (kop.) eta ehunekoa argitalpen zientifiko guztiekiko (%)

2023an 2023-2026 Euskal Unibertsitate Sistemaren Plana onartu izanak (aurrerantzean, 2023-2026 USP) nazioartekotze-jarduera guztiak bultzatzea dakar. Gainera, eta plan horrekin lerrotuta, hiru unibertsitateek nazioartekotzeko planak eta estrategiak dituzte gaur egun.

Horrela, EUSek azken urteotan ekin duen eraldaketarekin jarraitu nahi da. Prozesu eraldatzaile horrek 2030. urtea du jomuga. Urte horretan, Euskadik ikasleak eta nazioarteko talentua erakartzeko poloa izan nahi du, ikasle, irakasle eta ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen mugikortasun handiarekin, programa bereziekin, eta unibertsitateak eta bikaintasuneko ikerketa-zentroak munduan EBC markaren enbaxadoreak izanda. Azken batean, azken helburua **International Basque University System - Nazioarteko Euskal Unibertsitate Sistema** eratzea da.

Testuinguru horretan, azken bi hamarkadetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bere gain hartu du Euskal Unibertsitate Ekosistemaren jarduna nazioartekotze-prozesuan bultzatzeko

lidergoa, Eusko Jaurlaritzako Europar Batasuna eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritzarekin lankidetzan. Ekosistema hori unibertsitateek, BERC ikerketa-zentroek, Ikerbasque eta Unibasquek –sistemari laguntzeko eragileek– eta Euskampus, Aristos Mundus, 4gune eta KSIgune –bitarteko eragileek– osatzen dute (ikus 2. irudia).



2. irudia: Euskal Unibertsitate Ekosistemaren bilakaera 2001-2022

Euskadin dauden 9 **BERC**ei dagokienez (2008an hasi ziren lanean), nabarmendu behar da zeharkako ezagutza-arloetako oinarritzko ikerketan eta bikaintasunekoan espezializatutako eragile zientifikoak izanik, EUS erakundearen eta Euskadin egindako ikerketa zientifikoaren aitzindari izateko asmoarekin sortu zirela. BERCek Europako ezagutza-nodo gisa jardun behar dute, mundu osoko zentroetara konektatuta. Oro har, euskal ekoizpen zientifikoaren % 80 baino gehiago BERC sarea eta EUS osatzen dituen euskal unibertsitate-ekosistemaren testuinguruan egiten da.

Ikerbasque-Zientziarako Euskal Fundazioa, bestalde, 2007an sortu zen, ikerketa zientifikoak garatzen laguntzeko, lurraldean estrategikotzat jotzen diren espezializazio zientifikoko arloetan mundu-mailan bikaintasun-irizpideen arabera aitortutako ikertzaileak erakarri, atxiki eta berreskuratu. Gaur egun, 35 herrialdeetako 345 Ikerbasque-ikertzaile daude, eta horietatik 20 European Research Council (ERC) –Europako erakunderik garrantzitsuena ikerketa-proiektu bikainak bultzatzen– erakundearen finantzaketarekin proiektu garrantzitsuak garatzen ari dira, orain arteko gehieneko historikoa, hain zuzen ere.

ERC laguntza horiek ezagutzaren mugetan ikertzen jarraitu nahi duten edozein nazionalitateetako ikertzaileei laguntzen dieten proiektuak dira. Gaur egun bikaintasun-adierazle bihurtu dira, nazioartean aitortua, proposamen asko egiten direlako eta ebaluazio-prozesu zorrotza egiten delako. ERC laguntzak Europako *Horizon Europe* programaren barruan daude.

Programa horretan, Euskadi estatuko autonomia-erkidego liderra da *per capita* itzulkinen, 2021etik 2022ra bitartean 240M€ atzemanda. *Horizon Europe* programa Europar Batasuneko ikerketa eta berrikuntza-jardueretarako funtsezko tresna bihurtu da.

Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari dagokionez –2012an sortu zen–, nabarmendu behar da nazioartekotzearen eremuan egindako lana, unibertsitate-kalitatea ziurtatzearen eta ebaluatzearen esparruan hainbat nazioarteko lankidetzaren sareetako kide aktiboa baita, ENQA, INQAAHE eta ECA sareetakoak, besteak beste. Era berean, azken urteotan nazioarteko erakundeek finantzatzeko 17 nazioartekotze-proiektutan aktiboki parte hartu du.

Euskampus Fundazioa, bestalde, 2011n sortu zen, EHUko Euskampus-Nazioarteko Bikaintasun Mugaz Gaindiko Kampus proiektua kudeatzeko eta gobernatzeko erakunde arteko tresna gisa. Gaur egun, UPV/EHU, Tecnalia Korporazioa eta Donostia International Physics Center (DIPC), CAF eta Ormazabal-Velatia enpresak, Ikerbasque-Zientziarako Euskal Fundazioa eta Bordeleko Unibertsitatea ditu kide. Mugaz gaindiko campus hau espazio kooperatibo komuna da, balioa emateko bai Euskadi eta Aquitania Berria mailan, baita nazioartekotze mailan ere.

Euskampusen erakunde arteko jarduerak egiten ditu, aliantzaren lankidetzaren sustatzeko Euskadi-Frantzia mugaren bi aldeetako hainbat eragilarekin eta Europako beste eragile batzuekin, unibertsitate-prestakuntzak, ikerketak, transferentziak eta ezagutzaren hedapenak gizartean duten eragina areagotzeko.

Halaber, Campus Euskampus-Bordeaux espazioaren barruan, 2015az geroztik **Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Laborategiak** (MGLL) garatzen dira. Lankidetzaren formula horren helburua erakunde-esparru bat sortzea da, Euskadiko eta Bordeleko ikerketa-taldeek elkarrekin lan egin dezaten. Esparru horrek mugaz haraindiko ikerketa-komunitateen sorrera sustatu nahi du. Komunitate horietan ikertzaile nagusiak, seniorrak, ikasleak eta teknikariak egongo dira, laborategi batetik bestera mugarik gabe mugitu ahal izango direnak eta ikuspegi bera eta programa bera partekatu ahal izango dituztenak.

Bikaintasun-Campusen esparruan, **Aristos Mundus Nazioarteko Bikaintasunezko Campusa** aipatu behar da ere. 2015ean sortu zen, Deustuko Unibertsitatearen, Comillaseko Unibertsitate Pontifikaren eta Ramon Llull Unibertsitatearen artean, *Georgetown University*, *Boston College* eta *Fordham University* unibertsitateekin, bikaintasun akademikoa, irakaskuntza- eta ikerketa-bikaintasuna eta haien unibertsitate-proiektuen globalizazio osoa sustatzeko, berrikuntza sozial, arduratsu eta iraunkorraren aldeko apustu bateratua eginez.

Era berean, nabarmendu behar da Euskadin sortutako **4gune-k eta KSIgune Prestakuntza-Klusterrak** nazioartekotzearen eremuan duten potentzial handia –4gune 2017an sortua, Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologiaren esparruan; eta KSIgune 2021ean sortua, Kultura eta Sormen industriaren esparruan, hurrenez hurren–. Kontuan hartuta etorkizunean klusterrek

nazioartekotzearen ikuspegia garatuko dutela nazioarteko aliantzetan arreta jartzen duten proiektuetan parte hartuz eta lagunduz, ingurune egokitzat jotzen dira inpaktu-ikuspegia duen nazioartekotzea sustatzeko.

Ildo horretan, nabarmendu behar da **Confebask** Euskal Enpresarien Konfederakuntzak eta bere hiru lurralde-bazkideek –Adegi, Cebek eta SEA– 4gune prestakuntza-klusterrean parte hartu zuela 2017an sortu zenetik. Confebaskek nazioartean duen bultzada argia da, eta horren erakusgarri dira, alde batetik, Erasmus+ beka. Horiei esker, bai EUSeko unibertsitateetan matrikulatutako unibertsitate-ikasleek bai ikasle berriek praktikaldi bat egin dezakete nazioarteko enpresetan, eta lan-munduan lehen esperientzia izan dezakete. Bestalde, Confebaskek *Global Training* beka-programan ere parte hartzen du. Programa horren helburua Euskadiko gazteen nazioz gaidiko mugikortasuna sustatzea da, beren profil akademikoarekin eta profesionalarekin lotutako jarduerak eta proiektuak atzerriko herrialdeetako enpresetan egiten badituzte, aldez aurretik planifikatutako prestakuntza praktikoko plan baten bidez.

Hala, Hezkuntza Sailak unibertsitatei eta BERC ikerketa-zentroeiei lagundu nahi die planak definitzen, bai eta nazioartekotze-prozesuan eragile bakoitzak behar dituen antolamendu-aldaketak indartuko dituzten arauak eta programak garatzen ere. Estrategia horrek esparru estrategiko bat eskainiko du eragileen plangintzarako eta jarduketarako, tokiko mailatik nazioartekotze mailara pasatzeko lagunduko duen testuinguru bat garatuz.

2. ESTRATEGIA BESTE PLAN BATZUEKIN BAT ETORTZEA

Estrategia honen planteamenduak eta ondorengo abiarazteak bat etorri behar du, nahitaez, hezkuntzaren eta ikerketaren arloko beste politika, estrategia eta araudi batzuekin, Euskadikoekin zein Europakoekin. Ildo horretan, honako hauek nabarmendu behar dira: Europar Batasunak hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan dituen politikak, Eusko Jaurlaritzaren *2020-2024 legegintzaldiko XII. Programaren* konpromisoak, eta *EBC 2025 Estrategian* jasotako erreferentzia-esparrua.

2.1. Europar Batasuna eta Euskadi

Europar Batasunean, Europako Batzordeak irmotasunez babesten du hezkuntza eta ikerketa nazioartekotzea, besteak beste, 3. irudian agertzen diren tresnen bidez:



3. irudia: Hezkuntza eta ikerketa nazioartekotzen laguntzeko Europako Batzordearen tresnak

- **Europako Hezkuntza Esparruak** Europar Batasuneko hezkuntza-sistemak harmonizatzea du helburu. Horretarako, hiru zikloko hezkuntza-sistemak homogeneizatu nahi ditu, kualifikazioak eta atzerrian ikasteko aldiak elkarri aitortu, eta estatu kideei kalitate sistema komun bat aplikatu.
- Bestalde, **Europako Ikerketa Esparruak** Europar Batasunaren barruan ikerketarako, berrikuntzarako eta teknologiarako merkatu bakarra sortzea du helburu. Horretarako, ikertzaileen eta jakintzen mugikortasun askea erraztu nahi da Europako herrialdeen artean, eta ikerketa-programa eta aukera nazionalak harmonizatu.
- **Hezkuntza Digitaleko Ekintza Planak (2021-2027)** Europar Batasunean hezkuntza digitala komuna, inklusiboa, eskuragarria eta kalitate handikoa izateko ekimenak biltzen ditu.
- **Erasmus+ Programa** ikasleen mugikortasunean oinarritzen da, eta zeharkako trebetasunak garatzen ditu, hala nola digitalizazioa eta lidergoa. 2020an eta 2021ean aurrekontu txikiagoa ezarri zen, baliabideak pandemiarekin lotutako neurrietan kontzentratu zirelako, baina 2021-2027 aldian 28.000 milioi euro inguru bideratuko dira programara. 2022an bakarrik, unibertsitateetako 1,2 milioi ikasle eta langilek baino gehiagok parte hartu zuten mugikortasun-jardueretan, kopururik handiena erregistroak daudenetik.
- **Unibertsitate europarrak** antzeko ezaugarriak, helburuak eta programak dituzten unibertsitateen arteko aliantzak dira. Lankidetzaren sare horiek hainbat jardueratan oinarrituta egon daitezke: ikasleen eta ikertzaileen mugikortasunean nahiz berrikuntza eta lankidetzaren eta transferentziako proiektuetan, besteak beste.
- Azkenik, hezkuntza nazioartekotzen laguntzeko jarduerak ere **Next Generation funtsen** laguntza izan dezakete, digitalizazio-proiektuak finantzatzuz eta unibertsitate-baliabideak hobetuz.

Era berean, Europar Batasunak unibertsitateak, eskolak eta prestakuntza-zentroak hezkuntza eta ikerketa-sistemetan eragin handia duen informazioa zabaltzeko foro egokitzat hartzen ditu. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Europako foroen jarduera, hala nola EUA-*European University Association* (850 unibertsitate ordezkaturak), EURASHE-*European Association of Institutions in Higher Education* (550 unibertsitate ordezkaturak dituzten 60 kide), EUCEN-*European University Continuing Education Network* (146 kide) eta ENQA-*European Association for Quality Assurance in Higher Education* (105 erakunde).

Ikerketaren eremuan, EARMA-*European Association of Research Managers and Administrators* erakundeak antolatutako foroek komunitate zientifikoaren eta eragile zientifiko-teknologikoen arteko batasun gisa balio dute.

Euskadin, Eusko Jaurlaritzak hurrengo esparruak sustatzen jarraituko du: euskal lanbide-heziketaren nazioarteko proiektioa indartzea eta unibertsitatearekiko loturak eta transferentziak estutzea, eta alderantziz; euskal unibertsitate-ekosistemaren nazioartekotzean aurrera egitea; eta Aquitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdea bultzatzea.

Eusko Jaurlaritzaren konpromisoak abiapuntu gisa hartuta, azken urteotan hezkuntzaren nazioartekotzean eragina duten hainbat estrategia garatu dira, hala nola *EBC 2025 Estrategia* eta 2023-2026 USP.

2.2. Nazioarteko Esparru Estrategia – Euskadi Basque Country 2025


Eusko Jaurlaritzaren *EBC 2025 Estrategia*, zeinen ikuspegia 4. irudian jasota baitago, zeharkakoa da, kanpo-proiektioarekin, eta Euskadiren eta haren eragileen nazioarteko presentziari koherentzia eman nahi dio ingurune global batean.

Ikuspegia

“Euskadi eragile garrantzitsua da nazioartean, Europako proiektuarekin erantzunkidea, agenda globalarekin eta giza garapen jasangarriarekin konprometitua: herrialde berezi, abegikor, erresiliente eta berritzailea, Auzolanen lan egiten duena – lankidetzan, euskal komunitate global gisa”.

4. irudia: *EBC 2025 Estrategiaren* ikuspegia

EBC 2025 Estrategiaren planteamenduak bost ardatz ditu: 1) Kanpo-posizionamendua hobetzea; 2) sare sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea; 3) Europako proiektuan laguntzea eta parte hartzea; 4) Erronka globalak gainditzeko euskal ekarpena indartzea; eta 5) Euskal komunitate globala eraikitzea. Horietako bakoitza helburu estrategikoetan banatuta dago, eta ardatz bakoitzaren helburuak zehazten laguntzen dute (ikus 5. irudia):



5. irudia: *EBC 2025 Estrategiaren* ardatzak eta helburuak

EBC 2025 Estrategiaren ardatz eta helburu estrategiko horiei dagokienez, unibertsitateetako hezkuntza eta ikerketa-jarduerak lehen bi ardatzetako helburu estrategiko guztietan txerta daitezke, baita 3. eta 4. ardatzetako helburu gehienetan ere.

Nolanahi ere, unibertsitateen zeregina esplizituki aipatzen da 2.2 eta 3.2 helburu estrategikoetan:

- **2.2 HE. Gure ehun sozioekonomikoak bere proiektuak nazioarteko planean gauzatzeko laguntzea.** "Nazioartekotzeari laguntzeko plan sektorialak definituko dira, enpresa-ehunaren, sektore kulturalaren, unibertsitate-sistemaren eta turismoaren alorraren kanpo-jarduera sustatzeko eta sostengatzeko";
- **3.2 HE. Euskal eragileak EBren funtsezko ekimenetan guztiz integratzearen alde egitea.** "Europako Batzordearen jardunaren eremuak ugari eta askotarikoak dira, eta, hortaz, zabala da euskal nazioartekotze-sistemaren eragileei interesatzen zaizkien programen multzoa ere. Nolanahi ere, adibide batzuk aipatzearen, merezi du honako hauek nabarmentzea: Europa Horizontea Programa, ikerketa eta garapenaren alorrean; Europa kultural eta sortzaileari lotutako programak; europar unibertsitateei buruzko ekimena eta gaitasunen europar agenda; Europako garraio-sarearen hedapena; eta energia eta ingurumen-erlaketarekin, eraldaketa teknologiko-digitalarekin eta eraldaketa soziosanitarioarekin zerikusia dutenak".

Bestalde, xehetasun-mailan sakonduz, helburu estrategikoak jardueraren eremuetara eramaten dira, eta horiek *EBC 2025 Estrategiaren* proposamen globala gauzatzeko dute 6. irudian agertzen diren dimentsioetan:




6. irudia: Nazioarteko jardueraren eremuen eskema

Unibertsitateen hezkuntza eta ikerketa jarduerak **IV. Ezagutzaren eta Berrikuntzaren Sistema** dimentsioaren barruan daude. Sistema horretan, unibertsitatez gain, lanbide-heziketako zentroak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) eragileak ere sartzen dira.

EBC 2025 Estrategiak euskal unibertsitate-sistema nazioarteko sistema bihurtzeko beharra nabarmentzen du, Europako eta nazioarteko beste unibertsitate-sistema bikain batzuekin lankidetzan. IV. dimentsioak –Ezagutzaren eta Berrikuntzaren Sistema– EUSen eskaintza akademiko iraunkor eta erakargarri baten garapena azpimarratzen du, nazioarteko profilarekin, bai eta nazioarteko lankidetzak-maila handiagoa ahalbidetuko duten irakaskuntza, ebaluazio eta egiaztapen-ereduen sustapena ere.

Horrez gain, unibertsitateek eginkizun argia dute **VI. Zutabe soziala** dimentsioan ere, eta, zehazki, enplegua sortzean. *EBC 2025 Estrategiak* nabarmentzen du unibertsitateek eta lanbide heziketako zentroek langabezia-tasaren murrizketan egiten duten ekarpena, ez bakarrik Euskadin, baita Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan ere.

Azkenik, azpimarratu behar da estrategia horrek lehentasunezko geografia-multzo bat identifikatzen duela, eta horietan oinarritzen direla aipatutako ardatzak, helburuak eta jarduerak-eremuak betetzeko garatuko diren jarduketak gehienak. Geografia horiek – Aquitania Berria-lparralde, Korsika, Gales, Flandria, Babaria, Jiangsu, Quebec, Querétaro eta Cundinamarca – 7. irudian agertzen dira:



7. irudia: EBC 2025 Estrategiaren lehentasunezko geografien mapa


Europar Batasuna eta Euroeskualea lehentasunezko aukera-gunea da unibertsitate-lankidetzarako, Europako testuinguruan garatutako lankidetzak eta Euroeskualeko unibertsitate-sistemako eragileen artean dauden osagarritasunak baliatuz Euroeskualdearen kasuan. Era berean, funtsezkotzat jotzen da nazioartekotzea indartzea, bigarren maila batean Estatu Batuetan eta Hegoamerikan eta hirugarren maila batean, Japonian, Hego Korean, Txinan, Afrikan, etab.

Laburbilduz, *EBC 2025 Estrategiaren* planteamendu estrategikotik ondorioztatzen da unibertsitateek funtsezko zeregina dutela hura garatzeko, bai kanpoko posizionamenduari dagokionez, bai nazioartekotzea tokiko mailatik bultzatuko duten ekintzen garapenari dagokionez.

2.3. Unibertsitate Sistemaren Plana 2023-2026

Euskadiko unibertsitate-jardueraren azken urteetako plangintza estrategikoaren bilakaeraren testuinguruan, 2019-2022 USPan nazioartekotze-politikak bateratu egin ziren unibertsitate-sistema gisa 2015-2018 USParekin.

Ondoren, 2023an, 2023-2026 USPa abiarazi zen, 2019-2022 USParen bidez garatutako strategiari eta ekintzei jarraipena emanez. 2019-2022 USPan nazioartekotzea plana egituratzen zuten bost ardatzetako bat bazen ere, 2023-2026 USPa zazpi ardatzetan egituratuta dago, eta 8. irudian adierazten den bezala, nazioartekotzea lehentasunezko ardatz bihurtzen da. Izan ere, lehen "Nazioartekotze Ardatza" zena "Unibertsitatea + Euskadi Basque Country Ardatza" da orain. Horrek argi uzten du 2023-2026 USPa lehen zehaztutako *EBC 2025 Estrategiarekin* bat datorrela.



8. irudia: 2023-2026 Unibertsitate Sistemaren Planaren ardatzak

"Unibertsitatea + EBC Ardatz" horrek jauzi bat ematen du termino erlatiboetan 2023-2026 USPan, bai jardueri dagokienez, bai erabilitako baliabideei dagokienez. Izan ere, %162,3ko igoera izan dute. Plan hau garatu bitartean, ikasleen mugikortasunean oinarritutako nazioartekotzetik nazioarteko ikasleak eta ikertzaileak erakartzea eta atxikitzea bilatzen duen nazioartekotzera igaro nahi da, EAEk eskualdearentzat lehentasunezkoak diren esparruetan dituen talentu-beharrei erantzutera bideratutako ahaleginak eginez; hori guztia RIS3 lehentasunen esparruan.

Horrela, 2023-2026 USPak nazioartekotzea bi zentzutan sustatu nahi du. Alde batetik, EUSak nazioartean duen posizionamendua eta proiektzioa hobetuz; eta, bestetik, nazioartekotzearen onurak Euskadin eragin nabarmena izatea sustatuz.

Horretarako, planak ezinbesteko elementu batzuk definitzen ditu, hau da, EUSeko unibertsitate guztiek beren kudeaketa-planetan txertatu behar dituzten gaiak. Bestek beste, nazioartekotze-jarduerak RIS3 lehentasunekin lerrotatzea, nazioarteko lankidetzak sustatzea eta ikasleak eta nazioarteko talentua erakartzea. Ezinbesteko elementu horiek estrategia honetako jarduerak planteatzeko oinarri gisa balioko dute, eta 9. irudian jasota daude:



Unibertsitatea + Euskadi Basque Country

- RIS3 lehentasunekin lerrokatzea
- Euskadi Basque Countryren Unibertsitate enbaxadorea
- Prestakuntza iDuala
- Nazioarteko tesien bultzada
- Titulazioen mapa bultzatzea nazioartekotze-bektorean
- Ofizialak ez diren hizkuntzetan prestatzea/egiaztatzea
- Nazioarteko unibertsitate titulazioen eskaintza (baterako titulazioetan fokua)
- Nazioarteko lankidetzak estrategikoak
- Tokiko nazioartekotzearen eta nazioartekotze globalaren ikuspegia garatzea
- Atzerrirako mugikortasuna (ikasleak, irakasleak eta ikertzaileak)
- Nazioarteko ikasleak eta talentua erakartzea



- Ardatzean eraldaketa digitala garatzea
- Ardatzean gizarte-eragina aitortzea eta sustatzea

9. irudia: 2023-2026 USParen *Unibertsitatea + Euskadi Basque Country* ardatzaren ezinbesteko elementuak

2023-2026 USParen osagarri gisa, EUSeko unibertsitateek nazioartekotze-eredu propioak garatu dituzte, beren ezaugarrietara eta nazioartekotze-estrategietara egokituta, eta, nolana ere, munduan EBC markaren enbaxadore gisa egiten duten lana indartzera eta unibertsitate-jardueraren eremu guztietan nazioartekotzea indartzera bideratuta.

Azken batean, 2023-2026 USP-a guztiz bat dator *Unibertsitateak + EBC Esparru Estrategia 2030rekin*, bai ezinbesteko elementuen mailan, bai jardueren mailan, guztia ere 2030. urtean euskal unibertsitate-sistema **International Basque University System - Nazioarteko Euskal Unibertsitate Sistema** bihurtzeko helburuarekin, lehen aipatu den bezala.

2.4. Hezkuntzarekin eta ikerketarekin lotutako beste plan batzuk

EBC 2025 Estrategiaz eta USP 2023-2026az gain, estrategia honek bat etorri behar du hezkuntzarekin eta ikerketarekin lotutako beste plan, estrategia eta politika batzuekin.

Unibertsitateek enpresa-eremuarekin duten harremanari dagokionez, 2022an *II. Unibertsitatea + Enpresa Euskal Estrategia 2022-2026* argitaratu zen, Unibertsitatea+Enpresa harremana indartzeko, kualifikazio handiko talentuaren prestakuntzaren eta ezagutzaren sorkuntzaren eta transferentziaren bidez. Estrategia horrek nazioartekotze-osagai bat ere badu, ekintza-ildo batzuk garatuz. Zehazki:

- Prestakuntzaren klusterrak indartzea tokiko eta nazioarteko aliantzekin RIS3 Euskadiren inguruan;
- RIS3 lehentasunezko arloetan nazioarteko lankidetzak bultzatzea;
- Nazioarteko Unibertsitatea+Enpresa Gela eta Laborategien Sarea antolatzea, RIS3 lehentasunezko arloak kontuan hartuta;
- Unibertsitatea+Enpresa euskal ereduak tokiko eta nazioartekotze mailan zabaltzea.


Ikerketaren esparrua kontuan hartuta, erreferentziazko estrategia bat *Ikerbasqueren Plan Estrategikoa 2024* da. Bertan, Ikerbasqueren ikerketa-jardueraren barne-azterketa eta kanpo-azterketa egiten da. Testuinguru horretan, unibertsitateen zeregina funtsezkoa da; izan ere, Ikerbasqueko langileen %41 unibertsitateetatik dator, eta 25 unibertsitate eta ikerketa-zentro ingurutan dago.

Hala, EUS Ikerbasqueren Plan Estrategikoan identifikatutako interes-taldeetako bat da, eta unibertsitate-sistemaren gaitasun zientifikoa hobetzea eta ikastetxeen arteko lankidetzak sustatzea du helburu, bai tokiko mailan, bai nazioartekoan. Beraz, komeni da EUSek garatutako nazioarteko ikerketa-politikek eta jarduerak bat egitea Ikerbasqueren ikuspegiarekin eta jarraibideekin.

Planteamendu estrategikoa, jarduera-eremuak eta *Unibertsitateak + EBC Esparru Estrategia 2030ren* bidez garatu beharreko ekintzak bat etorriko dira, ez bakarrik atal honetan aipatutako gainerako estrategiekin, baita lotutako politikekin eta planetatik eratorritako beste premisa batzuekin ere, hala nola *ZTBP 2030* edo *IKUR 2030* Estrategiarekin.

3. OZTOPOAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK BESTE UNIBERTSITATE-SISTEMA BATZUK NAZIOARTEKOTZEKO

Testuinguru gero eta globalizatuago batean, beren jarduerak beste herrialde batzuetara hedatu nahi dituzten unibertsitate-sistemek hainbat oztopo dituzte, hala nola esparru juridiko desberdinak edo posizionamendu-arazoak. Jarraian, oztopo horiek identifikatzen dira, baita unibertsitate-sistemek oztopo horiek konpontzeko abian jar ditzaketan jardunbide egoki batzuk ere, 10. irudian ikusten den bezala.



10. irudia: Unibertsitate-sistemak nazioartekotzearekin lotutako oztopoak eta jardunbide egokiak

Eremu juridikoan, herrialdeen arau-esparruak oso desberdinak dira, baita hurbilen daudenen artean ere, europarrak bezala. Praktiketako ikasleen eta enpresen arteko harremanak arautzea, ikerketa-jarduerak beste ikastetxe batzuekin antolatzea eta finantzatzea edo irakasleak akreditatzeko prozesuak, adibidez, herrialde bakoitzak modu desberdinean jorratzen ditu arau-mailan.

Hala, beste herrialde edo eskualde batzuetako unibertsitateekin lankidetzan aritzeko aukerak bilatzen dituzten unibertsitate-sistemek zailtasunak dituzte beren jarduerak lerrokatzeko.

Testuinguru horretan, gomendagarria da kolaboratzaile izan daitezkeen bi unibertsitateen artean lantaldeak sortzea, bi herrialdeetako araudien osagarritasuna eta mugak aztertze eta, horrela, bi unibertsitateen arteko lankidetzak-jarduerak behar bezala definitzeko.

Bestalde, irakaskuntzaren eta ikerketaren arloetako egiaztatze-prozesuak ere desberdinak izan ohi dira herrialdeen artean. Beraz, lantalde juridiko bateratuak sortzeak lagundu dezake unibertsitateko langileak unibertsitate laguntzaileen akreditazio-prozesuetan integrazteko. Era berean, lan-esparru berriak aprobeztatzeak, hala nola Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua edo Europako Ikerketa Esparrua, bideragarriagoa egiten du unibertsitateen nazioarteko lankidetzak zabaltzea.

Eremu arautzailearekin amaitzeko, Europako edo nazioarteko laguntzak lortzeko prozesuak oso zorrotzak dira, eta, gainera, herrialdeen arteko lehiakortasuna oso handia da. Horregatik, garrantzitsua da unibertsitateek laguntza-zerbitzuak ematea nazioarteko laguntzak jasotzeko hautagaitzei, bai bidelagun izateko, bai gaiarekin lotutako beste zerbitzu batzuen bidez.

Unibertsitatearen nazioartekotze-kulturari dagokionez, unibertsitate-komunitateko langileen artean homogeneousun falta dagoela egiaztatu da. Beste unibertsitate batzuekin egiten diren jardueretan parte hartzen duten langileek (mugikortasuna, lankidetzak-proiektuak, etab.) hobeto ezagutzen dituzte nazioartekotzearen beharrak. Unibertsitate-komunitateko beste sektore batzuek, ordea, inplikazio txikiagoa izan dezakete nazioartekotze-ekintzetan. Horregatik, funtsezkoa da unibertsitatearen nazioartekotze-jarduera guztiak estrategikoki lerrokatzea, baita unibertsitate-komunitatean zabaltzea ere.

Nazioarterako kulturaren dagoen homogeneousun ezaren ondorioz, atzerriko beste unibertsitate batzuetatik datozen langileek –irakasle ikertzaileak– edo ikaslegoak zailtasunak izan ditzakete tokiko unibertsitate-bizitzan integratzeko (hizkuntza, ohiturak, etab.). Premia horren aurrean, *Onboarding* programak eta beste ongi-etorri-zerbitzu batzuk gomendagarriak dira, ikasleak eta profesionalak behar bezala eta eraginkortasunez integra daitezten.

Informazioaren kudeaketari dagokionez, nazioartekotzea unibertsitateko zeharkako eremua denez, informazio hori sakabanatuta eta irizpide desberdinekin landuta egon ohi da. Batzuetan, unibertsitate-zentro bateko lantaldeek ez dituzte ezagutzen beren unibertsitateko beste zentro batzuetan egiten ari diren nazioartekotze-jarduerak, eta, horrela, arloen arteko sinergiak izatea zaila da. Nazioartean posizionamendua hobea duten unibertsitateek nazioartekotzearekin lotutako informazioa kudeatzeko sistema bat izan ohi dute, unibertsitateko zentro guztiak barnean hartzen dituen, informazio hori guztiak ezagutu eta partekatu ahal izan dezaten.

Nazioartekotze-jarduera horiek, gehienbat, kanpora begira egiten dira, helmugako herrialdean duten eragina kontuan hartuta, eta ez herrialde horretan bertan. Horregatik, eta hurrengo ataletan garatuko den bezala, **Internationalization at Home** planteatzen da unibertsitate-sistemak nazioartekotzeko estrategietan. Labur-labur, nazioartekotzea atzerriko herrialde batera joan beharrik gabe garatu ahal izatean datza.

Hala ere, nazioartekotzearen onurak unibertsitate-komunitatera mugatzeko arriskua dago. Unibertsitateek nazioartekotze-jarduerak modu independentean diseina ditzakete, hau da, tokiko beste eragile batzuekiko lankidetzak potentzialak kontuan hartu gabe, hala nola erakunde, ikerketa-zentro edo enpresekiko lankidetzak potentzialak. Horregatik, **ezinbestekoa da inguruko beste eragile batzuekiko lankidetzak eta gaitasunen batura, unibertsitateak nazioartekotzeko planak garatzeko**. Unibertsitate-sistemen helburu nagusia gizartean eragin positiboa izatea da, eta, horregatik, gomendagarria litzateke nazioartekotzearen onurak zuzenean zabaltzea beste gizarte-eragile batzuetara, hala nola enpresa-sarera edo tokiko komunitatera.

Unibertsitateek aurrean izan dezaketen beste oztopo bat da ez dutela nazioarteko ingurunean posizionamendurik; izan ere, batzuetan zailtasunak izaten dituzte tradizioz errotuta ez dauden beste eskualde edo herrialde batzuetan kokatzeko. Horretarako, nazioartekotze-jarduerak abiarazi aurretik, **kanpora begirako komunikazio-estrategia eraginkor bat** ere diseinatu behar

da. Unibertsitateak nazioartean dituen helburuak, gaitasunak eta eskaintza zabaltzeko balio behar du, lankidetzak potentzialak bilatzea erraztuz.

Azkenik, nazioartean posizionamendurik ez izateak beste unibertsitate-sistema batzuen nazioartekotze-jarduerak ez ezagutzea ekar dezake. Sinergiak eta lankidetzak aukerak detektatzeko helburuarekin, lan-sistematika bat garatu behar da (adibidez, datuak, estrategiak eta emaitzak sistematikoki biltzeko eginkizuna duten egiturak sortuz), informazioa lortu eta trukatzeko, beste unibertsitate-sistema batzuekiko sinergiak hautematen eta nazioartekotzea bultzatuko duten neurriak eta ekintzak proposatzen laguntzeko.

Azken batean, unibertsitateek nazioartekotze-prozesu arrakastatsuak egin ditzaten, funtsezko elementua lankidetzak da: bai barne-mailan –lantaldean eta unibertsitate-zentroen artean–, bai kanpo-mailan –beste unibertsitate, erakunde edo enpresa batzuk erakarriz–. Hau funtsezko ikuspegia da esparru-estrategia honetan.

4. UNIBERTSITATEAK + EUSKADI BASQUE COUNTRY 2030 ARKITEKTURA ETA PLANTEAMENDU ESTRATEGIKOA

Unibertsitateak + EBC Esparru Estrategia 2030 hau **2030erako International Basque University System – Nazioarteko Euskal Unibertsitate Sistema lortzera** bideratuta dago, aurreko ataletan aipatutako planen premisa eta jarraibideekin bat etorritik. Atal honetan, planaren arkitektura garatzen da, baita beste elementu estrategiko batzuk ere, hala nola jarduketak-eremuak, garatu beharreko elementuen eta ekintzen ondorengo ikuspegia ezartzen dutenak.


Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da 2022an eta 2023an Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzak eta EUSeko unibertsitateetako Nazioartekotze Errektoreordetzak osatutako lantaldeak egindako lana, Euskadik nazioartekotzearen esparruan duen egoera eta jardueraren eremu bakoitzean jarraitu beharreko ildo estrategikoak modu xehatuan aztertze helburuarekin. Elkarrekin egindako lan hori estrategia honen abiapuntua izan zen.

Bestalde, garrantzitsua da kontuan hartzea, halaber, prestakuntza dualaren eta *II. Euskal Unibertsitatea + Enpresa 2022-2026* Estrategiaren eremuan gertatzen den bezala, nazioartekotze-estrategia definitu bat egon arren, kasu honetan bezala, unibertsitateak izango direla, unibertsitatearen autonomiaren esparruan, nazioartekotzearen esparruan egin beharreko ahalegina zehaztuko dutenak.

4.1. Planaren arkitektura

Plan honen formulazio estrategikoa nazioartekotzea ikuspegi bikoitz batetik konbinatzen duen planteamendu batean oinarritzen da –*Internationalization at Home* eta *Internationalization at Large*–, funtsezko hiru jardun-eremurekin batera: lehenik eta behin, ikasleen, irakasle eta ikertzaileen eta TKAZPen prestakuntza; bigarrenik, ikerketa eta ezagutzaren transferentzia; eta, azkenik, unibertsitate-sistemak enpresa-sarearekin eta gizartearekin duen harremana.

Estrategia osatzen duten ikuspegiak eta jarduketa-eremuak lehentasunezko geografia-multzotz batean oinarrituta daude, *EBC 2025 Estrategian* aipatuak eta ondorengo ataletan garatuak. Horrela, *Unibertsitateak + EBC Esparru Estrategia 2030ren* egiturak 11. irudian erakutsitako eskemari erantzuten dio:



11. irudia: *Unibertsitateak + EBC Esparru Estrategia 2030ren* arkitektura

4.2. Helburu estrategikoak

Eusko Jaurlaritzak EUS indartzearen alde egiten duen apustuaren gakoetako bat da nazioartekotzea, Europako eredurik aurreratuenak hartzen baititu erreferentziazat. Unibertsitate-komunitatea eta haren inguruko hainbat motatako eragileak funtsezkoak dira euskal gizarte hobeto garatzeko. Era berean, garrantzitsua da kontuan hartzea EUSek beste eskualde batzuen garapen sozioekonomikoan izan dezakeen eginkizun eraldatzailea, batez ere lehentasunezkoztat jotzen direnena eta Euskadirentzat interes strategikoa duten eragileak kokatzen direnena.

Horrela, *Unibertsitateak + EBC Esparru Estrategia 2030ren* azken helburua honako hau da: **"Europako eta nazioarteko testuinguruak euskal unibertsitateen eskura jartzen dituen aukera guztiak aprobetxatzea, Euskadiren eta nazioarteko eskualde estrategikoen garapen sozial eta ekonomikorako palanka izan dadin"**.

Azken helburu hori lortzeko, bigarren mailan bost helburu estrategiko ezartzen dira:

1. HE: Nazioartekotzea bultzatuko duen testuinguru bat garatzeko gaitzea baliabideak eta pertsonak

Azpiegitura, prestakuntza- eta irakaskuntza-metodologia eta nazioartekotze-kultura onenak izatea, beste eskualde batzuetako eragileekin lankidetzan proiektuak erakarri eta bultzatzeko. Horretarako, ekintzak sustatu nahi dira –ikasleen eta pertsonalaren mugikortasuna eta harrera egiteko ongietorri-zerbitzuak eta irakasleen eta ikertzaileen trukea, besteak beste– I+G proiektuak garatzeko.

2. HE: Eskaintza espezializatzea eta lehenestea eta nazioarteko lankidetzak

Nazioarteko programa bereziak diseinatzea eta indartzea (adibidez, *Blended Intensive Programs*) euskal hezkuntza-eskaintzaren elementu berri gisa. Europako Batzordeak irakaskuntza-eredu malgu eta hibridoan aldeko apustua egiten duen programak abian jartzea. Eredu horien bidez, ikasleak ez ezik, "etxean" eta xede-erakundean irakasten duen irakasleen klustroa ere nazioartekotuko dira. Era berean, EUSeko unibertsitateak bateratzea planteatzen da, nazioarteko bazkideekin jardunbide egokiak bilatzeko.

3. HE: Nazioartekotzera bideratutako eskualdeekin eta sistemekin egindako akordio estrategikoak definitzea

Lehentasunezko beste herrialde edo lurralde batzuetako eragileekin aliantza eta lan-espazio komun berriak eraikitzea, atzerrian EUSen esparrua osatzeko. Era berean, balizko bazkideak, sinergiak eta eragile estrategikoekin lankidetzan aritzeko formulak identifikatzea planteatzen da.

4. HE: Ezagutza sortzea eta transferitzea lankidetzak-esparru batean eta nazioarteko proiektuak elkarrekin sortzeko esparru batean

I+Gko jarduera eta ekoizpen zientifikoa bultzatzea, ez bakarrik unibertsitate-ingurunean, baita beste eragile zientifiko-teknologiko batzuekin (ZTBESkoak zein nazioartekoak) lankidetzan egindako proiektuen bidez ere. Era berean, pertsonen transferentzia sustatzea proposatzen da, hala nola enprekin egiten diren proiektuetan parte hartzen duten irakasle eta ikertzaileen transferentzia eta ezagutzaren transferentzia.

5. HE: EUSak nazioarteko testuinguruan duen posizionamenduan aurrera egitea, 2030. urtean *International Basque University System* - Nazioarteko Euskal Unibertsitate Sistema lortu arte

Unibertsitateen eta bikaintasuneko ikerketa-zentroen lana sustatzea, EBC markaren munduko enbaxadore gisa. EUSek nazioartean duen posizionamendu hobea, islatuko da, besteak beste, EAEko unibertsitateek nazioarteko beste eragile batzuekin

lankidetzan egindako proiektu instituzionalen kopuruan; prestakuntza-jarduera ofizialarekin, bizialdi osoko prestakuntza-jarduerarekin, ekoizpen zientifiko garrantzitsuarekin edo ezagutza ehun sozioekonomikora transferitzearekin lotutako mota askotako proiektuetan, besteak beste; ikasleak eta ikertzaileak erakartzea eta prestigio-rankingak hobetzea eragingo duten nazioarteko proiektuetan, sailkapen horietan egindako hobekuntza hori helburu bihurtu gabe.

Horrela, bada, unibertsitateen eremuko nazioartekotze-prozesuaren plangintzaren lan-esparruak eskatzen du **Euskadin errotutako EUS bat eraldatzea; bokazio europarra eta, besteak beste, nazioarteko talentua erakartzeko gune izan nahiko du.**

EUS nazioartekotzeko eraldaketa-prozesuan, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan eta Ikerketaren Europako Esparruan parte hartzea azpimarratzen da. Eraldaketa-prozesu horrek lehentasuna emango dio EUSen eta Europako eta nazioarteko beste unibertsitate-sistema bikain batzuen arteko lankidetzari, nazioartean duen posizionamenduari eta sistemaren eraldaketa digitalari.

Prozesu eraldatzaile horri erantzuteko plangintza unibertsitateen eta **bikaintasuneko ikerketazentroen nazioarteko gaitasunen lehen maparen** identifikaziotik abiatzen da, bai eta EUS nazioartekotzeko lehen eraldaketa-estrategiaren proposamenetik ere, *EBC 2025 Estrategian* oinarrituta eta 2030era arte jarraitzeko bokazioarekin.

4.3. Nazioartekotzea, ikuspegi bikoitzetik

Unibertsitateak + EBC Esparru Estrategia 2030k proposatzen duen ikuspegian, nazioartekotzea sustatzeko analisia eta ekintzak **ikuspegi bikoitzetik egiten dira: *Internationalization at Home* eta *Internationalization at Large*.**

Alde batetik, *Internationalization at Home* (aurrerantzean, *IH*) terminoa 90eko hamarkadaren amaieran sortu zen Europako unibertsitate-ekosisteman. *IH* honela definitzen da: "nazioarteko eta kulturarteko dimentsioak sartzea ikasleen, ikertzaileen eta bestelako langileen jarduera formal eta informaletan, unibertsitate-komunitatearen barruan".

Horrela, *IH*ren helburua da nazioartekotzearen onurak unibertsitate-komunitate osora iristea, batetik, eta mugikortasunaren jarduera eta ekimen osagarriak dituzten nazioarteko profilak garatzea, bestetik. Era berean, konpetentzia profesionalak, linguistikoak eta kulturazintunak garatzeko aukera ematen du.

Prestakuntzari dagokionez, *IHK* ikuspegi eta erronka globalak eskaini nahi dizkie ikasle guztiei beren prestakuntza-programetan, nazioartekotzea modu inplizitu eta esplizituan txertatuz prestakuntza-programetan. Ikerketari eta transferentziari dagokienez, *IHK* irakasle eta ikertzaileen profilak garatu nahi ditu, eta nazioarteko eta kulturarteko ikuspegiak dituzten

lantaldeetan sartu, bai eta nazioarteko beste bazkide batzuetako ikertzaileak sartu ere, euskal unibertsitateen ikerketa-jardueran parte har dezaten.

Bestalde, *Internationalization at Large* (aurrerantzean, *IL*) kontzeptua tradizionalki "nazioartekotzea" deitu izan denari dagokio. Haren helburua da nazioartekotzeak euskal unibertsitate-sistemaren kanporanzko estrategia bat bultzatzea, nazioarteko lankidetzarako eta posizionamendurako arloak identifikatuz eta jarduteko mugak zabalduz, aldi berean tokiko sustraitzeari eutsiz.

EUSTik kanporako estrategiak bat etorri behar du, nahitaez, Euskadiko espezializazio-arloekin; zehazki, ZTBP 2030ek ezarritakoekin: Energia Garbiagoak, Industria Adimenduna eta Osasun Pertsonalizatua. Alde horretatik, arreta jarriko da baterako titulazioak bilatzean, ikasleen, TKAZPen, irakasleen eta ikertzaileen kanporako mugikortasuna lantzean, eta nazioarteko lankidetzaren estrategikoetan, besteak beste.

IL ez da prestakuntzaren arloan pertsonak mugitzera bideratuta egongo soilik, baita ikerketaren arloan ere, adibidez, nazioarteko beste eragile zientifiko-teknologiko batzuekin lankidetzan egindako I+G proiektuen bidez. Era berean, nazioarteko kolaboratzaileak posizionatzen diren eskualdeetako enpresa-sarean eta gizarte-ingurunean eragitea ere izango du helburu *ILak*.

Azken batean, 2030erako ***International Basque University System - Nazioarteko Euskal Unibertsitate Sistema*** bat lortzeko, beharrezkoa da hasiera-hasieratik nazioarteko ikuspegia sartzea unibertsitate-komunitatearen esparru guztietan, eta, aldi berean, nazioartekotze-estrategia bat hedatzea kanporantz.

4.4. Jarduera-eremuak

Unibertsitateak + EBC Esparru Estrategia 2030ren arkitektura osatzeko, *IL* eta *IHz* gain, hiru jarduera-eremu daude: Prestakuntza; Ikerketa eta Transferentzia; eta Unibertsitatea + Enpresa + Gizartea.

Prestakuntzaren eremuan, kontuan hartu behar da nazioartekotzea, ikasleengan zentratutako irakaskuntza-metodologia berrien garapenean, bai eta unibertsitate-eskaintza hibrido baten diseinuan ere (presentziala eta birtuala). Eskaintza hori nahitaez garatu behar izan zen pandemian, eta, horren ondoren, interesgarria izan daiteke beste helburu batzuk lortzeko, hala nola nazioartekotzea. Irakaskuntza birtualari dagokionez, formatu presentzialeko irakaskuntzaren osagarri izateaz gain, unibertsitateen, ikasleen eta irakasle eta ikertzaileen arteko elkarrekintza handiagoa eta arinagoa ahalbidetzen du globalizazioaren testuinguruan.

Estrategia horrek EUSeko unibertsitateetako eta BERC bikaintasuneko ikerketa-zentroetako ikasleen eta langileen nazioarteko mugikortasunaren alde egiten du, *ad hoc* programen bidez, hala nola Ikerbasque programa, nazioarteko mugikortasunerako bekak, Europako Unibertsitateekiko eta *International friendly* unibertsitateekiko aliantzak edo ingeleseko

master-mailako eskaintza akademikoa, baterako titulazioak eta nazioarteko aintzatespena duten titulazioak indartzea. Era berean, talentua euskal unibertsitateetara eta BERC bikaintasuneko ikerketa-zentroetara erakartzea sustatzen da, Ikerbasque Programaren bidez.

Halaber, **Basque International Masters (BIM)** programa garatzea proposatzen da, masterren eta graduondoko beste titulazio batzuen eskaintza multzoa. Horiei zerbitzu-zorroak lotzen zaizkie, kanpotik datorren ikaslearentzako erakargarritasuna eta tokiko ikasleentzako nazioartekotze-testuinguru bat ematen dutenak, eta horrek guztiak goi-mailako ikaskuntza-komunitate bat osatzen du euskal testuinguru ikertzaile eta profesionalaren testuinguruan. Ekintza horrek, era berean, beste bi esparruetan eragingo du: ikerketa eta ezagutzaren transferentzian, eta Unibertsitatea+Enpresa+Gizartean.

Azkenik, EUSeko unibertsitateen gaitasunak konbinatzeko aukera aurreikusten da, unibertsitate-makro-eskaintza ikuspegi sistemikoarekin arlo oso espezifikoetan sortzeko, hala nola teknologia kuantikoetan (*Basque Quantum*), ingeniartzetan edo biozientzien esparruan.

Ikerketari eta Transferentziari dagokionez, Euskadik eragile zientifiko-teknologiko ugari ditu (IKZak, BERCak, etab.), eskualdeko ikerketa-jarduera modu esanguratsuan bultzatzen dutenak. Testuinguru horretan, nazioartekotzeak ezinbesteko zeregina du eragile horien jarduerak nahiz EUSekiko eta beste unibertsitate-sistema batzuekiko lankidetzak indartu eta hedatzeko. Unibertsitateen eta ikerketaren esparrutik ZTBP 2030 planari ekarpena egitea bultzatuko da, unibertsitateen eta bikaintasuneko ikerketa-zentroen lankidetzak sustatuz Europako proiektu estrategikoetan, hala nola Horizon Europe –gaur egun, EUSeko eta BERCetako unibertsitateetako ikertzaileek 164 Horizon Europe proiektutan parte hartzen dute, eta proiektu horietako 19tan buru dira–, ERIC partzuergoetan edo Europako flagship-etan. Era berean, EUSeko unibertsitateak sortzea eta nazioz gaindiko laborategietan parte hartzea sustatuko da (ikus 12. irudia).




12. irudia: ERIC partzuergoen eta nazioz gaindiko laborategien adibideak

Bestalde, irakaskuntzaren eta prestakuntzaren eta ikerketaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko erduei helduko zaie, nazioarteko lankidetzaren maila handiagoa ahalbidetzeko, Unibertsitate Kalitate Agentziak Europako sareetan duen presentzia areagotuz.

Horrez gain, arau-garapen bat bultzatuko da, EUS nazioartekotzeko prozesuari laguntzeko. Ildo horretan, adibidez, Euskadi da doktoregoetan nazioarteko egonaldia eskatzen duen lurralde nazionalerako autonomia-erkidego bakarra, doktoregoen %100ak nazioarteko esperientzia duen lurraldea izateko.

Azkenik, Unibertsitatea + Enpresa + Gizartea eremuari dagokionez, titulu i-dual ofizialen eskaintza indartuko da, talentuaren nazioarteko garapen eta posizionamendua bultzatuko da, enpresen nazioartekotzeari lagunduko zaio unibertsitateekin lankidetzan, prestakuntzaren klusterrak indartuko dira RIS3 Euskadiren inguruko nazioarteko aliantzekin, eta nazioarteko lankidetzaren bultzatuko da RIS3 lehentasunezko arloetan, besteak beste.

Estrategia honetako ekintzen garapena hiru jardueraren eremu horietara bideratuko da, ikuspegi bikoitzetik, bai *IL* eta bai *IH*, nazioarteko testuinguruak planteatzen dituen erronkei erantzunez, 13. irudian adierazten den bezala.



13. irudia: Unibertsitateak + EBC Esparru Estrategia 2030ren ekintzen garapena.

4.5. Lehentasunezko geografiak

EBC 2025 Estrategiak interes bereziko geografia batzuk definitzen ditu Euskadi marka nazioartean hedatzeko. Lurralde horiek, 7. irudian identifikatuta, hainbat mailatan banatzen dira: lehenik eta behin, Euroeskualdea eta Europar Batasuna; bigarrenik, Amerika; eta, azkenik, Afrika eta Asia.

Ondoren, Europar Batasunari eta Amerikari erreparatuz, herrialde bakoitzerako nazioartean posizio onena duten unibertsitateak, unibertsitateen eta beste eragile batzuen arteko lankidetzak handienak dituzten eskualdeak eta ikerketa-eremu garatuenak identifikatzen dira.

EUROESKUALDEA (AQUITANIA BERRIA-EUSKADI-NAFARROA) ETA EUROPAR BATASUNA

FRANTZIA



Frantziak 72 unibertsitate, 25 unibertsitate-erkidego, 271 doktore-eskola eta 227 goi-mailako ingeniari-eskola ditu, besteak beste. Goi-mailako hezkuntza-erakunde askok hamarkada askotako esperientzia dute prestakuntzan eta ikerketan. Unibertsitate nabarmenenak Parisko metropoli-arean daude: *Paris Sciences et Lettres-PSL Research University Paris*, *Université Paris-Saclay*, *Institut Polytechnique de Paris*, *Sorbonne University* eta *Université Paris Cité*. Horiek guztiak THE Times Higher Education sailkapeneko top 200-aren barruan daude.

Eskualde-eremuan, lau eskualde nabarmentzen dira goi-mailako hezkuntzako, ikerketako eta berrikuntzako ekosistemak dituztelako:

- **Nouvelle-Aquitaine:** bikaintasuneko 7 laborategi eta prestakuntza berritzaileen bikaintasuneko lau ekimen ditu. Eremu aurreratuenak aeronautika/espazioa, nekazaritza, energia, kontsumo-ondasunak eta informazioaren teknologiak dira. Eskualde horretan, Iparralde eta Pirinio Atlantikoetako departamendua nabarmentzen dira, Euskadirekiko duten hurbiltasun geografiko eta kulturalagatik. Lurralde horietan unibertsitateak eta goi-mailako irakaskuntza-zentroak daude, hala nola *Industria Teknologia Aplikatuena Goi Eskola* (Bidart) eta *Pauko eta Adour herrialdeetako Unibertsitatea* (Pau);
- **Auvergne Rhône-Alpes:** unibertsitateei lotutako 30 ikerketa-laborategi bikainekin, arlo garatuenen artean nabarmentzen dira aeronautika, kimika, garraioak, informazioaren teknologiak eta ingeniari-eremuak nahiz zerbitzuak;
- **Provence Alpes Côte-D'Azur:** ikerketako 50 unibertsitate-eskola baino gehiagok, bikaintasuneko 14 laborategi eta bikaintasuneko bi ekimenek osatzen dute. Hauek dira ezagutza-polo esanguratsuenak: ura, bio-baliabideak eta bioteknologiak, kimika eta adimen artifiziala eta datuen kudeaketa;



- **Île-De-France:** Parisko metropoli-eremua dagoen eskualde hori nabarmentzen da 65 unibertsitateri lotutako bikaintasun-laborategi ugariengatik, bai eta prestakuntza berritzaileen arloko bikaintasuneko 12 ekimen baino gehiagorengatik ere. Jakintza-arlo aipagarrienak automobilgintza, bioteknologiak/osasuna, robotika, informazioaren teknologiak eta ingeniariak dira.

ALEMANIA



120 unibertsitate inguruk, zientzia aplikatuetako 208 zentrok eta 57 arte-eskolak osatzen dute Alemaniako goi-mailako hezkuntza-sistema. Alemaniako unibertsitate- eta ikerketa-sistema industriarekin duen harremanagatik nabarmentzen da, batez ere ezagutzen transferentziari eta sortutako enpleguari dagokienez, baita ikerketa-kalitateagatik ere. Alemaniako unibertsitate onenek hainbat mendetako historia eta ikerketa-tradizio handia dituzte, eta nabarmentzekoa da Nobel sarien kopuru handiarekin eta hainbat esparrutako zientzialari ospetsuekin duten lotura.

Alemaniako 8 unibertsitate lehen ehun unibertsitateen artean daude THE Times Higher Education rankingean. Horien artean, honako hauek dira nabarmentzekoak: *Technical University of Munich*, *LMU Munich*, *Universität Heidelberg*, *Humboldt University of Berlin* eta *RWTH Aachen University*.

Eskualdeei dagokienez, hegoaldeko biak (Bavaria eta Baden-Württemberg) eta North Rhine-Westphalia nabarmentzen dira, horiek baitira unibertsitate, ikerketa-zentro, enpresa eta eragileen arteko lankidetzaren handiena duten eremuak. Hegoaldeko eskualdeek posizionamendu nabarmena dute arkitekturan, ingeniariak elektrikoa, mekanikoa eta industrialean, bai eta gizarte-zientzietan eta portaeraren zientzietan ere. Bestalde, North Rhine-Westphalia eskualdea kimikaren, humanitateen, ingeniariaren eta zerbitzuen arloetan nabarmentzen da.

ERRESUMA BATUA



Erresuma Batuko unibertsitate-ekosistema munduko zaharrenetakoa da, eta mende askoko historia duten unibertsitateak ditu. Irakaskuntzaren kalitateagatik, nazioarteko posizionamenduagatik eta ikasleen mugikortasunagatik nabarmentzen dira: graduiko ikasleen %20 inguru eta graduondoko ikasleen %40 baino gehiago nazioartekoak dira. Horregatik, unibertsitateek era guztietako ongi-etorria edo *Welcome Centers* zerbitzuak diseinatu dituzte, ikasleen eta ikertzaileen egokitzapena errazteko.

Gaur egun 108 unibertsitate inguru daude, 250 campusetan baino gehiagotan banatuta, eta 500 bat hezkuntza- eta ikerketa-erakunde daude elkartuta. THE Times Higher Education sailkapenaren arabera, ehun unibertsitate onenen artean, 11 Erresuma Batukoak dira, eta horien artean Londresko *Oxford*, *Cambridge*, *UCL* eta *Imperial College* unibertsitateak nabarmentzen dira.

Londresko metropoli-areak, North West (Liverpool eta Manchester daude bertan), South East (Oxford) eta Gales dira eragile gehien biltzen dituzten lurraldeak, bai hezkuntzakoak, bai ikerketakoak, bai eta unibertsitateen arteko lankidetzak-ekimen handienak ere. Hauek dira eskualde horietan gehien garatutako jakintza-arloak: biomedikuntza eta bioteknologia, zientzia fisikoak, adimen artifiziala eta energia berriztagarriak.

ITALIA



Italiak, mendeetan zehar izan duen garapen sozioekonomikoari esker, munduko unibertsitate zaharrenetako batzuk ditu, hala nola Boloniako Unibertsitatea, 1088an sortua eta gaur egun munduko 200 unibertsitate onenen artean kokatua. Guztira, 100 unibertsitate inguru daude Italian, eta horien artean nabarmentzekoak dira ikerketa-jardueraren kalitateagatik, edo argitalpenen eta ikerketa-bikaintasunaren eraginagatik, patenteen garapenagatik eta industria-eremura ezagutza transferitzeagatik.

Lombardia eta Emilia-Romagna eskualdeek (herrialdearen iparraldean) eta Lazio eskualdeak (erdigunean) garatzen dituzte gehien unibertsitateen eta ikerketa-zentroen arteko lankidetzak-jarduerak. *CNR -Consiglio Nazionale delle Ricerche*, *INAF -Istituto Nazionale di Astrofisica* eta *CESV -Centro di Studi Avanzati in Scienze Umane e Sociali* unibertsitateetako ikerketa-zentro garrantzitsuenetako batzuk dira.

Azkenik, jakintza-eremuei dagokienez, Italiako unibertsitate- eta ikerketa-ekosistema honako hauetan nabarmentzen da: biomedikuntza eta genetika; arkeologia eta kultura-ondarea; gizarte-zientziak, historia eta literatura; fisika nuklearra eta partikulena.

SUEDIA



Suediak munduko hezkuntza-sistema eta berrikuntza-ingurune garatuenetako bat eta hobekien balioetsitakoetako bat hedatu du. Gaur egun, goi-mailako hezkuntzako 50 erakunde inguru ditu, eta horien artean 6 unibertsitate nabarmentzen dira 2023ko QS Ranking-aren lehen 200en barruan: *KTH Royal Institute of Technology*, *Lund University*, *Chalmers University of Technology*, *Uppsala University*, *Stockholm University* eta *University of Gothenburg*.

Lurraldeei dagokienez, Stockholmeko eskualdea, Västra Götaland eta Skane, herrialdeko hegoaldeko kostaldean, unibertsitateen, zentro zientifiko-teknologikoen, enpresen eta gizartearen artean lankidetzak gehien duten eremuak dira. Bertan, Estatuan eta nazioartean garrantzia duten eragileak daude, hala nola *Karolinska Institutua* (medikuntza eta bioteknologia), *KTHko Ikerketa Institutua* (informazioaren teknologiak eta ingeniariak), *IRP -The Swedish Institute of Space Physics* (aeronautika eta espazioa) eta *SICS-Swedish Institute of Computer Science* (konputazio eta datuen zientziak).



DANIMARKA



Danimarkako goi-mailako hezkuntza-sistemak 8 unibertsitate, 9 arkitektura- eta arte-zentro eta 9 negozio-eskola barne hartzen ditu, baita beste erakunde batzuk ere, hala nola goi-mailako prestakuntza-zentroak eta itsas hezkuntzako eskolak. Danimarkako unibertsitate-ikasleen %25 inguru beste herrialde batzuetatik datoz, eta, horregatik, Danimarkako hezkuntza-sistemak era guztietako zerbitzuak eskaintzen ditu ikasle horien egokitzapena eta integrazioa errazteko.

Guztira, 30 erakunde inguruk osatzen dute daniera goi-mailako hezkuntza-sistema, eta horien artean nabarmentzekoak dira *University of Copenhagen*, *Aarhus University* eta *Technical University of Denmark*, nazioartean izan duten ibilbide eta posizionamenduagatik. Horiek bereziki nabarmentzen dira ikasleen mugikortasunari dagokionez, baita ikertzaileak nazioarteko talde eta proiektuetan sartzeari dagokionez ere.

Unibertsitateen eta teknologia-zentroyen artean lankidetzeta-aukera handienak dituzten eskualdeei dagokienez, Hovedstaden (herrialdeko hiriburua bertan dago), Kopenhagen eta Midtjylland (herrialdearen erdigunean) nabarmentzen dira.

Danimarkako ikerketa-arlo aurreratuenak hauek dira: energia berriztagarriak, –*Copenhagen Centre on Energy Efficiency* da erreferentzia–; eta medikuntza eta osasun-zientziak. *Bioneer* teknologia biomedikoko zentroa nabarmentzen da, eta hori, hain zuzen ere, *Technical University of Denmark*-ekin eta ingurumen-zientziekin lotuta dago.

FINLANDIA



Finlandiako unibertsitate-sistema 25 unibertsitatek osatzen dute, eta horietatik 22 zientzia aplikatuetoakoak dira. Erakundeen arteko lankidetzeta Finlandiako unibertsitate-sistemaren indarguneetako bat denez, unibertsitateen eta teknologia-zentroyen arteko lankidetzeta-aukerak oso banatuta daude herrialde osoan. Zenbait eremu, hala nola Helsinkiko metropoli-eremua eta Tampere eta Turku eskualdeak, egokienak dira lankidetzeta-aukerak bilatzeko, erakunde akademikoen eta ikerketa-erakundeen kontzentrazioa dela eta.

Unibertsitateko ekosistemak eta Finlandiako ikerketa-ekosistemak gehien garatzen dituzten ikerketa-eremuak adimen artifiziala eta zibersegurtasuna, energia berriztagarriak –energia eolikoa eta biomasa–, nanoteknologia eta ingurumena dira.

Aipatutako herrialde eta eskualde horiez gain, Europako beste eskualde batzuek, hala nola Flandriak, Belgikan, edo Dublingo metropoli aldeak, Irlandan, hainbat lankidetzeta-aukera eskaintzen dizkiote EUSi:

- Alde batetik, Flandria eskualdeak Europan ospea duten hainbat unibertsitate daude, hala nola *KU Leuven*, *Ganteko Unibertsitatea (UGent)* eta *Anberesko Unibertsitatea*

(UAntwerpen). Espezializazio-arloei dagokienez, garrantzitsuenak bioteknologia, nanoteknologia, ingeniarietza mekanikoa eta ingeniarietza zibila dira, besteak beste:

- Eta bestetik, Irlanda oso ondo kokatuta dago nazioarteko ikasleen ratioari dagokionez ikasle guztiekiko, baita nazioarteko ikerketa-sareetan parte hartzeari dagokionez ere. *Trinity College Dublin* 150 unibertsitate onenen artean dago maila globaleko ranking ospetsuenetako batzuetan (QS, THE), eta erreferentziazko ikerketa-zentroak ditu, besteak beste, medikuntzaren eta bioteknologiaren eremuetan.

AMERIKA

ESTATU BATUAK



Estatu Batuek goi-mailako hezkuntzako 4.000 erakunde baino gehiago dituzte, unibertsitate publikoak, pribatuak, eskola espezializatuak eta beste hezkuntza-erakunde batzuk barne. Estatu Batuetako unibertsitateak dira nazioartean onenak, eta Shanghai, QS eta THE Times Higher Education rankingeko postu altuenetako asko betetzen dituzte. Nazioartean aintzatespen onena duten unibertsitateen artean, honako hauek daude:

- *Stanford University, Massachusetts Institute of Technology* eta *California Institute of Technology*, industriarako transferentziari eta ezagutzaren babesari dagokienez: patenteak, markak eta diseinu komertzialak sortzea;
- *Harvard University, Princeton University* eta *Yale University*, irakaskuntzaren kalitateari eta ikerketa-jardueren inpaktuari dagokienez: eragin handiko argitalpen zientifikoak, erreferentziazko ikerketa-taldeetan duten eragina eta beste ikerketa batzuetako zitazioak.

Unibertsitate horien posizionamendua eta Estatu Batuetako berrikuntza-ekosistemak kontuan hartuta, hezkuntza- eta ikerketa-eragileen artean lankidetzaren aukera handienak dituzten eskualdeak honako hauek dira: San Frantzisko badia eta Los Angeles metropoli-eremua (Kalifornia), Raleigh-Durham eremua (Ipar Carolina) eta Massachusetts eta New York estatuak.

Bestalde, Estatu Batuak munduko liderrak dira ikerketako hainbat arlotan, gehienak enpresen, ikerketa-zentroen eta unibertsitateen arteko lankidetzari esker. Ikerketa eta berrikuntzako arlo garatuenen artean daude, besteak beste, medikuntza eta biomedikuntza, zibersegurtasuna, energia berriztagarriak, aeronautika eta espazioa, hainbat sektoretarako material aurreratuak eta neurozientzia.



KANADA



Kanadako unibertsitate-sistema 95 unibertsitate publiko zein pribatuk osatzen dute, eta Kanadako 1,4 milioi ikasle inguru hartzen dituzte. Nazioartean ondoen posizionatuta daudenak *University of Toronto*, *University of British Columbia*, *McGill University* eta *McMaster University* dira.

Kanadako unibertsitateek aitorpena jaso dute herrialdeko enpresa- eta ekintzailtza-ekosistemarekin duten harremanagatik –1.500 ikerketa-enpresa eta-laborategi baino gehiago daude unibertsitateko 26 ikerketa-instalaziotan– eta nazioarteko eskaintzagatik –Kanadako unibertsitateen % 97k nazioarteko esperientziaren bat eskaintzen die beren langileei, hala nola nazioarteko mugikortasun-aukerak ikertzaile eta ikasleentzat edo boluntariotza-jarduerak–.

Kanadan gehien garatutako ikerketa-eremuei dagokienez, honako hauek sartzen dira: baliabide naturalei eta energia berriztagarriei buruzko azterlanak, biomedikuntza, adimen artifiziala eta intraekintzailtza.

Azkenik, eskualdeen mailan, Ontario eta Quebec, herrialdearen ekialdean, eta Columbia Britainiarra, mendebaldeko kostaldean, dira unibertsitateen eta beste eragile zientifiko-teknologiko eta enpresarial batzuen arteko lankidetzak gehien biltzen duten probintziak.

MEXIKO



Mexikon estatuko 35 unibertsitate publiko eta 9 unibertsitate publiko federal daude, baita goi-mailako hezkuntzako 1.000 erakunde inguru ere, hala nola institutu teknologikoak edo eskola publikoak. Halaber, 27 erakunde zientifiko eta teknologiko publikok osatzen dute Ikerketa Zentro Publikoen Sistema, eta goi-mailako ikerketan eta irakaskuntzan jarduten dute.

Unibertsitateen artean, nabarmentzekoak dira *Monterreyko Institutu Teknologikoa*, *Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa*, *Sinaloako Unibertsitate Autonomoa* eta *Mexikoko Institutu Teknologiko Autonomoa*.

Mexikoko Estatua, Mexiko Hiria eta Nuevo León, Jalisco, Puebla eta Querétaro eskualdeak dira lankidetzak aukera handienak dituzten eremuak, batez ere goi-mailako hezkuntzako eragileen eta ikerketa-zentroen kontzentrazio handiagatik. Zehazki, Pueblan eta Mexikoko Hirian daude goi-mailako hezkuntzako erakunde gehien, eta Jalisco eta Pueblak, berriz, hazkunde industrial eta ikerketa hazkunde handiagoa izan dute azken urteotan.

Bestalde, herrialdean gehien garatu diren ikerketa-arloak osasunarekin (txertoen garapena, osasun publikoa), ingeniariarekin (elektrikoa eta mekanikoa) eta humanitateekin (soziologia, antropologia eta filosofia) lotuta daude.



TXILE



Txileko unibertsitate-sistemak 60 unibertsitate baino gehiago ditu, eta horien artean daude estatuko unibertsitateak, estatukoak ez diren unibertsitate tradizionalak eta unibertsitate pribatuak. Oro har, herrialdean prestigio handiena duten unibertsitateak *Pontificia Universidad Católica de Chile*, *Universidad de Chile*, *Universidad de Concepción* eta *Universidad de Santiago de Chile* dira.

Biobío eta Valparaíso eskualdeak, Concepción eta Valparaíso hiriak, hurrenez hurren, nabarmentzen dira inguruko beste eragile batzuekin lankidetzan aritzen diren hezkuntza-erakundeen kopuruagatik. Hiriburuko metropoli-areak, Santiagok, ere biltzen ditu unibertsitateko ekosistemako eragileen arteko lankidetzaren ekintza asko.

Ikerketa-gaiei dagokienez, Txileko aurreratuenak astronomiari, ingurumen-baliabideei (natura-baliabideen kudeaketa, jasangarritasuna) eta energia berriztagarriei dagozkie.

KOLONBIA



Gutxi gorabehera 300 eragilek osatzen dute Kolonbiako goi-mailako hezkuntzako erakundeen ekosistema, eta horietatik 90 (68 unibertsitate) kalitate handiko erakunde gisa akreditatuta daude. Unibertsitate hauek dira Latinoamerikan ezagunenak: *Unibertsitate Nazionala*, *Javeriana Unibertsitatea* eta *Antioquiako Unibertsitatea*.

Cundinamarca, Bogota barne, hiriburua, Antioquia eta Valle del Cauca dira unibertsitateen eta beste eragile batzuen arteko lankidetzaren jardueraren handienak dituzten sailak. Lankidetzaren ekimen horien artean, Ekintzaitzako Unibertsitate Sarea eta Goi Mailako Hezkuntza Nazioartekotzeko Kolonbiako Sarea nabarmentzen dira, herrialde osoa hartzen badute ere, eginkizun nabarmenagoa baitute aipatutako eskualdeetan.

Osasunaren esparrua (prebentzio-medikuntza eta gaixotasun subtropikalei buruzko ikerketa), ingurumena (ingurune ekologikoen eta jasangarritasunaren azterketa) eta nekazaritza dira Kolonbian gehien garatutako ikerketa-gaiak.

ARGENTINA



Argentinak 67 unibertsitate-erakunde nazional (edo publiko) ditu, baita 65 unibertsitate-erakunde pribatu ere, 2.800.000 ikasle inguru mobilizatuz. Espainia da Argentinako ikasleen helmuga nagusia –nazioarteko mugikortasuna egiten duten ikasleen %25,5–, ondoren Frantzia eta Estatu Batuak daude. Aitzitik, Argentinako ikasle atzerritarren %3 bakarrik dator Europatik, eta Latinoamerikako beste herrialde batzuek (Brasil, Mexiko eta Peru) ematen diote ikasle gehien Argentinari.

Buenos Airesko Unibertsitatea bederatzigarren postuan dago Latinoamerikako Unibertsitateen artean. *La Platako, Kordobako eta Rosarioko Unibertsitate Nazionalek* eta *Unibertsitate Australak* herrialdeko unibertsitate onenen rankinga osatzen dute.

Buenos Aires hiri autonomoa eta Buenos Aires, Kordoba eta Santa Fe probintziak dira unibertsitateen, enpresen eta ikerketa-erakundeen arteko lankidetzaren handiena duten eremuak. Horietan, nabarmentzekoak dira *Ikerketa Zientifiko eta Teknikoen Kontseilu Nazionala, Laneko Azterlan eta Ikerketa Zentroa* eta *Teknologia Industrialaren Institutua*.

Unibertsitateen eta beste eragile batzuen arteko ikerketa mailan, Argentinan gehien aztertu diren arloak zientzia politikoak, antropologia, nekazaritza eta ondasun naturalen kudeaketa iraunkorra dira.

Azken batean, eremu horien unibertsitate eta ikerketa-sistemen azterketari esker, Euskadirentzat interesgarriak diren 50 eskualde eta 25 ikerketa-arlo inguru identifikatu daitezke epe luzera. Nolanahi ere, lankidetzaren auzerak herrialde eta eskualde bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokitu beharko dira.

5. ESTRATEGIAREN HEDAPENA: GARATU BEHARREKO EKINTZAK, JARDUERA-EREMUAREN ETA IKUSPEGIAREN ARABERA

Unibertsitateak + EBC Esparru Estrategia 2030 eraikitzeko oinarria planteatu ondoren, hainbat jardura abiarazi behar dira **International Basque University System – Nazioarteko Euskal Unibertsitate Sistema** lortzeko.

Atal honetan, jardura-eremuak eta ikuspegi bikoitza (*IH* eta *IL*) uztartzen dira, eta, ondoren, gurutzaketa bakoitzean garatu beharreko zenbait ekintza zehazten dira. Zerrenda honetan, maila altuan definitutako ekintzak daude, EUSEK datozen urteetan norantz jo beharko lukeen zehazten dutenak.

5.1. Prestakuntza – *Internationalization at Home*

Prestakuntzaren eremuak, nazioartekotzearen tokiko ikuspegitik, eskaintza akademikoarekin lotutako ekintzak jasotzen ditu, titulazioei eta programei dagokienez, baita irakaskuntza-jarduerarekin eta TKAZPekin lotutako beste batzuk ere. Guztira 34 ekintza identifikatu dira, 7 kategoriatan banatuta, 1. taulan ikus daitekeen bezala:

Taldekatzera	Garatu beharreko ekintzak
Izendapen-agiriak	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleentzako kredentzialak aintzatestea, nazioarteko esperientzien arabera (adibidez, <i>Certificate of International Merits</i>); • Mikrokredentzialen aitortpen ofiziala duten programak;
Mugikortasuna at Home	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Incoming</i> nazioarteko mugikortasun-formatu berriak hedatzea (birtuala eta/edo fisikoa);



Taldekatzeara	Garatu beharreko ekintzak
Irakaskuntza- jarduera	<ul style="list-style-type: none"> • Nazioartekotze-irizpideetan oinarritutako irakaskuntza- eta ebaluazio-ereduak sustatzea; • Irakasleak eta kudeaketako langileak ofizialak ez diren hizkuntzetan trebatzeko planak garatzea; • Irakasleak hizkuntza ez-ofizialetan egiaztatzea sustatzea; • Irakaskuntza emateko gonbidatutako nazioarteko irakasleak integratzea; • Irakasleei eta nazioarteko ikaslegoari harrera egiteko ongietorri-zerbitzuak diseinatzea; • Curriculumaren eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren nazioartekotzea bultzatzea; • Ingelesaren erabilera sustatzea irakaskuntza eta kudeaketa-baliabideen hedapenean eta produkzioan;
Eskaintza akademikoa (Titulazioak eta Programak)	<ul style="list-style-type: none"> • Nazioarteko proiektuetan parte hartzean oinarritutako ikaskuntza-eskaintza; • Gradu eta graduondoko titulazio ofizialak eta berezkoak, nazioarteko aipamenarekin; • Unibertsitateko baliabideak gaitzea titulazio bikoitzak garatzeko; • Nazioartean esperientzia duten titulazio dualak diseinatzea; • Ikastaro espezifikoak sortzea, modalitate presentzialean, erdi-presentzialean eta birtualean, nazioarteko ikasleentzat. • Gradu, masterreko eta doktoregoko ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuetan eskaintza akademikoa sortzea; • Eskaintza akademikoaren nazioarteko egiaztapenak bultzatzea; • Nazioarteko beste unibertsitate batzuen jarduerak EUSen egungo ikasketa-eskaintzan sartzea; • Etengabeko prestakuntzaren nazioarteko aipamena; • Diziplinarteko eskaintza indartzea, nazioartekotzea zeharkako bihurtzen baita gai-eduki osoan; • Formatu hibridoak dituzten baterako programa berritzaileak: programa laburrak, <i>Blended Intensive Programmes</i>, <i>Immersive Programmes</i>; • Nazioarteko eskola birtualak abian jartzea (adibidez, udako campusa); • <i>Basque International Masters (BIM)</i> programa garatzea;
Nazioarteko ikasleak erakartzea	<ul style="list-style-type: none"> • Lehentasunezko beste geografia batzuetan ikasleak erakartzeko zerbitzuak eskaintzea; • Nazioarteko ikasleen integrazioa; • Atzerriko ikasleak integartzeko egokitzapen-espazioak eta -programak sortzea (adibidez, Ikaslearen ataria, <i>Buddy Programme</i>); • Ikasle atzerritarrak ikasle arrunt gisa matrikulatzeko prozesua erraztea; • Beste eskualde batzuetako ikasleentzako gradu eta master beken programak diseinatzea; • Nazioarteko ikasleak eta talentua erakartzeko estrategia espezifiko bat diseinatzea;
Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala (TKAZP)	<ul style="list-style-type: none"> • TKAZPak kontuan hartzea unibertsitate bakoitzeko ikasleei, irakasleei eta nazioarteko talentuari zerbitzua emateko ardura duen kolektibo gisa; • TKAZPak nazioartean gaitzeko programak garatzea; • TKAZPentzako nazioarteko truke-eskaintza eskaintzea;



Taldekatzea	Garatu beharreko ekintzak
Beste batzuk: Prestakuntza - IH	<ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza-klusterrak indartzea tokiko eta nazioarteko aliantzekin, RIS3 Euskadiren inguruan; • Ezagutza-sareak sortzea eta nazioarteko lankidetzan hainbat gairi buruzko proiektuak garatzea;

1. taula: Prestakuntza-ekintzak – *Internationalization at Home*

5.2. Prestakuntza – *Internationalization at Large*

Atzerriko nazioartekotzearekin lotutako prestakuntza-ekintzei dagokienez, ekintza horiek, besteak beste, euskal unibertsitateen nazioarteko posizionamendua hobetzeko ekintzak jasotzen dituzte, hala nola Prestakuntza Klusterrak indartzea nazioarteko aliantzekin. Guztira, 17 ekintza identifikatu dira, lau kategoriatan banatuta, eta 2. taulan ageri dira:

Taldekatzea	Garatu beharreko ekintzak
Eskaintza akademikoa (Titulazioak eta Programak)	<ul style="list-style-type: none"> • Eskaintza akademikoaren nazioarteko posizionamendua; • Aliantza berriak bilatzea graduko/ masterreko titulazio bikoitzak garatzeko; • Nazioarteko Bikaintasun Campusak indartzea; • Nazioarteko campusak sustatzea (presentzialak/birtualak); • <i>Basque International Masters (BIM)</i> programa garatzea;
Kanporako mugikortasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Nazioarteko mugikortasuneko <i>outgoing</i> formatu berriak hedatzea (birtuala eta/edo fisikoa); • Iraupen laburreko mugikortasunak bultzatzea gradu, master eta doktoregoko ikasleentzat (birtuala eta fisikoa); • Ikasleen atzerriko mugikortasun-hitzarmen berriak negoziatzea; • Erasmus Mundus masterrak bultzatzea; • Baliabide gutxiago dituzten kolektiboetako ikasleen mugikortasuna beken bidez sustatzea;
Irakaskuntza-jarduera	<ul style="list-style-type: none"> • Irakaskuntzako egonaldien/esku-hartzeen programa sartzen diren irakasleentzat; • Irakasle eta ikertzaileen eta TKAZPen irakaskuntza-jardueretan parte hartzea bazkide estrategikoak diren unibertsitateetan; • Irakaskuntza ematea nazioartean; • Atzerrian katedrak garatzea;
Nazioarteko Posizionamendua (Prestakuntza)	<ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzan aritzea honako hauekin lotutako nazioarteko unibertsitate-sareetan: esparru akademikoa (adibidez, Europako unibertsitateak); • Prestakuntza Klusterrak nazioarteko aliantzekin indartzea; • Parte-hartze proaktiboa eta posizionamendua Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan;

2. taula: Prestakuntza-ekintzak – *Internationalization at Large*

5.3. Ikerketa eta Transferentzia – *Internationalization at Home*

Ikerketa nazioartekotzeari eta tokiko ikuspegiaren transferentziari buruzko ekintzak, adibidez, EUSen azpiegituran *Open Labs* sortzearekin eta nazioarteko lankidetzetara irekitzearekin lotuta daude. Oro har, guztira 17 ekintza identifikatu dira, lau kategoriatan banatuta, 3. taulan ikus daitekeen bezala:

Taldekatzera	Garatu beharreko ekintzak
Ikertzaileentzako eskaintza	<ul style="list-style-type: none"> • Ikertzaileak prestatzeko eta hobetzeko programak: nazioartean enfasia duten doktoratu aurreko eta ondoko doktoretzak; • Nazioarteko laguntzak eta horrekin lotutako beste zerbitzu batzuk eskuratzeko hautagaitzei laguntzeko zerbitzuak ematea; • <i>ERC grants</i> programan parte hartzen laguntzea; <i>ERC grants</i> duten langileak abian jartzea eta ezartzea; • Europako bikaintasun-deialdi irisgarrienak identifikatzea eta aurkeztea; • Taldeen prestakuntza nazioarteko deialdietan eta elkarlaneko ikerketan;
Ezagutza-poloak	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Open Labs</i> irekitzea nazioarteko ikertzaileekin lankidetzan; • EAEko unibertsitate-campusetan nazioarteko ekitaldiak antolatzea jakintza-arlo/ikerketa zehatzetan; • Ezagutza-sareak sortzea eta hainbat gairi buruzko proiektuak garatzea nazioarteko lankidetzan; • EUSeko lantaldeetan ikerketa-ekintzak sustatzea, nazioarteko bazkideekin lankidetzan; • <i>Basque International Masters (BIM)</i> programa garatzea;
Mugikortasuna at Home	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Incoming</i> nazioarteko mugikortasun-formatu berriak hedatzea (birtuala eta/edo fisikoa);
Nazioarteko Ikertzaileen erakarpina	<ul style="list-style-type: none"> • Nazioarteko doktoregaiak erakartzea; • Irakasleei eta nazioarteko ikaslegoari harrera egiteko ongietorri-zerbitzuak diseinatzea; • Lehentasunezko beste geografia batzuetan talentu ikertzailea erakartzeko zerbitzuak ematea; • IkaBasque talentua erakartzeko programa; • EUSeko ikerketa-taldeetan nazioarteko langileak sartzea; • Nazioarteko aipamena duten dokotore-tesiak eta <i>at Home</i> nazioarteko kotutoretzak;

3. taula: Ikerketa eta transferentzia-ekintzak – *Internationalization at Home*

5.4. Ikerketa eta Transferentzia – *Internationalization at Large*

Bestalde, ikerketaren eta transferentziaren arloan, kanpora begirako nazioartekotze-ekintzek ezinbestean ekarri behar dute ikertzaileak eta haien proiektuak nazioartekotzeko jardueren eta zerbitzuen eskaintza sendoa sortzea. Gurutzaketa horretan, guztira 22 ekintza identifikatu dira, lau kategoriatan banatuta, eta 4. taulan ageri dira:

Taldekatzera	Garatu beharreko ekintzak
--------------	---------------------------



<p>Ikertzaileentzako eskaintza</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <i>In situ</i> espezializatutako graduondoko eta doktoregoko titulazioen eskaintza, atzerriko xede-publikoaren parte-hartzea eta erakarpena malgutzen duten modalitate hibridoetan arreta jarritz; • Nazioarteko aipamena duten doktore-tesiak eta <i>at Large</i> nazioarteko baterako tutoretzak garatzea; • Lankidetzan egiteko nazioarteko ikerketa-proposamenak prestatzea; • Nazioarteko campus birtualak bultzatzea: Juan Sebastián Elcano programa;
<p>Nazioarteko Lankidetzan Ikerketan</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikerketa kolaboratiboko ekintzak sustatzea nazioarteko bazkideen baliabide eta azpiegiturekin; • Mugaz gaindiko eta nazioarteko laborategien sarea indartzea, EUSen beste espazio komun bat, EUSeko hiru unibertsitateekin abian jartzeko prozedura adostu baten bidez; • Nazioarteko patenteak eskatzeko eragile estrategikoekiko lankidetzan sustatzea; • Ikerketa-arloarekin lotutako nazioarteko unibertsitate-sareekin lankidetzan aritzea (adibidez, Europako unibertsitateak); • Nazioarteko bazkideekin ikerketa-jardunbide egokiak trukatzeko sistematika bat diseinatzea; • EUSeko ikertzaileen partaidetza duten nazioarteko proiektu lehiakorren kopurua bultzatzea; • <i>Basque International Masters (BIM)</i> programa garatzea;
<p>Kanporako mugikortasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nazioarteko mugikortasuneko <i>outgoing</i> formatu berriak hedatzea (birtuala eta/edo fisikoa); • Atzerriko egonaldiak sustatzea ikertzaileentzat, nazioarteko tesiak eginez; • Nazioarteko ikerketa-egonaldiak ematea; • Ikerbasque programan parte hartzea: talentu ikertzailea erakartzea;
<p>Nazioarteko Posizionamendua (Ikerketa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartze proaktiboa eta posizionamendua ERIC partzuergoetan; • Nazioarteko erronkak definitzeko ezagutza-partzuergo eta -aliantzetan parte hartzea; • Europako ikerketa-plataformetan parte hartzea, hala nola Europar Batasuneko ikerketako eta berrikuntzako esparru-programako (FP10) Europako plataforma teknologikoetan; • Erakundeen parte-hartzea nazioarteko I+G+b proiektuetan; • Parte-hartze proaktiboa eta posizionamendua Europako Ikerketa Esparruan; • IIPa biltzar nazionaletara eta nazioartekoetara joatea eta parte hartzea; • Nazioarteko ospe handieneko aldizkarietan argitaratutako artikuluzientifikoaren kopurua eta kalitatea bultzatzea;

4. taula: Ikerketa eta transferentzia-ekintzak – *Internationalization at Large*

5.5. Unibertsitatea + Enpresa + Gizartea – *Internationalization at Home*

Unibertsitatea + Enpresa + Gizartea eremuak, *at Home* ikuspegitik, ekintzak aitortzen ditu, euskal enpresen nazioartekotzeari laguntzeko zerbitzuen eskaintzatik hasi eta nazioarteko langileek tokiko boluntarioen jardueretan parte hartzeraino. Guztira 17 ekintza identifikatu dira, 5. taulan jasotako lau kategoriatan banatuta:



Taldekatzea	Garatu beharreko ekintzak
Unibertsitatea + Enpresa Harremana	<ul style="list-style-type: none"> Euskadiko enpresa-sarearekin zuzenean lan egitea, nazioarteko proiektuen bidez eta enpresekin lankidetzan; Lan-mundura igarotzeko beken programak abian jartzea, nazioartera begira; Enpresetan praktikak egiteko eskaintza diseinatzea, gradu eta masterreko nazioarteko ikasleentzat; Nazioartean esperientzia duten titulazio dualak diseinatzea; EUSen azpiegitura duten nazioarteko ekintzaile potentzialak sustatzea eta babestea; Enpresak espezializatzeko eta nazioartekotzeko laguntza-zerbitzuak, unibertsitateekin lankidetzan; <i>Basque International Masters</i> (BIM) programa garatzea;
Mugikortasuna at Home	<ul style="list-style-type: none"> <i>Incoming</i> nazioarteko mugikortasun-formatu berriak hedatzea (birtuala eta/edo fisikoa); Irakasleei eta nazioarteko ikasle goiari harrera egiteko ongietorri-zerbitzuak diseinatzea; Nazioarteko langileak tokiko ikasleentzako parte-hartzearen bidez integratzea;
Tokiko-Nazioarteko Unibertsitate Komunitatea	<ul style="list-style-type: none"> <i>Internationally Friendly</i> testuingurua garatzea; Tokiko unibertsitate-komunitatearen artean nazioartekotzearen helburuak zabaltzea; Nazioarteko ikasleentzako parte-hartzea sustatzea tokiko komunitateak garatzeko jardueretan; Ezagutza-sareak sortzea eta hainbat gairi buruzko proiektuak garatzea nazioarteko lankidetzan; Alumni programak bultzatzea; Unibertsitate-komunitatearen hizkuntza-gaikuntza eta kulturarteko gaitasuna;
Beste batzuk: U+E+Gizartea - IH	<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitateak atzerrian dituen harreman instituzionaletako ordezkariak gaitzea;

5. taula: Unibertsitatea + Enpresa + Gizartea ekintzak – *Internationalization at Home*

5.6. Unibertsitatea + Enpresa + Gizartea – *Internationalization at Large*

EUSek gizartean eta enpresa-sarean duen eraginari dagokionez nazioartean duen posizionamendua lortzeko, erakundeek nazioarteko lankidetzaren proiektuetan parte hartu behar dute, bai eta unibertsitate-sistemen arteko ekintzailetza-jardueretan lankidetzaren bultzatu ere. Guztira 11 ekintza identifikatu dira, 6. taulan zehaztutako lau kategoriatan banatuta:

Taldekatzea	Garatu beharreko ekintzak
Unibertsitatea + Enpresa Harremana	<ul style="list-style-type: none"> Praktikak egiteko lankidetzaren hitzarmenak planteatzeko aukera ematen duten fundazioak eta nazioarteko beste erakunde batzuk identifikatzea; Nazioarteko ekintzailetza-inguruneak eta lankidetzaren aukerak identifikatzea; Nazioarteko unibertsitate laguntzailetako inkubagailuen arteko mugikortasuna bultzatzea;



	<ul style="list-style-type: none"> • EUSeko ikasleen eta ikasketak amaitu dituztenen eta nazioarteko lan-merkatuaren arteko harremana bultzatzea; • Kanpoko U+E lankidetzaren programaren garapena (adibidez, Aplikatuz programa); • Nazioarteko Unibertsitatea+Enpresa Gelak RIS3 lehentasunen inguruan antolatzea; • <i>Basque International Masters</i> (BIM) programa garatzea;
Kanporako mugikortasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Nazioarteko mugikortasuneko <i>outgoing</i> formatu berriak hedatzea (birtuala eta/edo fisikoa);
Nazioarteko Unibertsitate Komunitatea	<ul style="list-style-type: none"> • Erakundeen parte-hartzea nazioarteko lankidetzaren proiektuetan (boluntariora);
Nazioarteko Posizionamendua (U+E+G)	<ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitatea+Enpresa+Gizartea harremana nazioarteko biltzarretan zabaltzea; • Enpresa-eremuarekin eta gizarte-ingurunearekin lotutako nazioarteko unibertsitate-sareekin lankidetzaren aritzea (adibidez, Europako unibertsitateak);

6. taula: Unibertsitatea + Enpresa + Gizartea ekintzak – *Internationalization at Large*

5.7. Nazioartekotzeko zeharkako beste ekintza batzuk

Azkenik, garatu beharreko ekintza gehigarri batzuk zehazten dira. Ekintza horiek ez daude zuzenean lotuta estrategian definitutako eremuekin eta ikuspegiekin, baina beharrezkoak dira EUS nazioartekotzeko prozesuan aurrera egiteko. Guztira 15 ekintza identifikatu dira, bi kategoriatan banatuta (*IH* eta *IL*), eta 7. taulan jasota daude:

Taldekatzea	Garatu beharreko ekintzak
Beste batzuk: Internationalization at Home	<ul style="list-style-type: none"> • Nazioartekotze-zerbitzuak eta lotutako euskarri-prozesuak digitalizatzea; • EUSen nazioartekotze-politiken jarraipena egiteko sistema bat sortzea; • Nazioarteko unibertsitate bazkideen ekitaldiei buruzko informazio-jardunaldiak antolatzea; • Nazioarteko proiektzioko jardueretan eskumenak dituzten campus, bulego eta lantalde guztien koordinazioa sustatzea; • Nazioarteko proiektzioko jardueretan eskumenak dituzten zerbitzu guztien datu-baseak bateratzea; • Lankidetzaren planak definitzea tokiko erakunde eta eragileekin (Eusko Jaurlaritza, ZTBES, etab.), nazioartekotze-planak abian jartzeko.



Taldekatzea	Garatu beharreko ekintzak
<p style="text-align: center;">Beste batzuk: Internationalization at Large</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nazioarteko rankingetan posizionamenduaren hobekuntza sustatzea (<i>U-Multirank, THE Impact</i>); • Nazioarteko komunikazio eta posizionamendu estrategia bat garatzea; • Lankidetzeta aktiboa eta etengabea Euskadiko atzerriko ordezkartzeekin lehentasunezko geografietan; • Ordezkartze-bulegoak ezartzea lehentasunezko beste geografia batzuetan; • Unibertsitateetara eta eragile estrategikoetara bisita instituzionalak planifikatzea; • Azoka/ekitaldietan parte hartzea, nazioarteko bazkideekin lankidetzan; • EUSen gaitasunak nazioartean zabaltzeko tresnak garatzea; • EUSen nazioartekotzea sustatzea, nazioarteko komunikabideen eta sare sozialen bidez; • Arlo juridikoan lantaldeak sortzea nazioarteko unibertsitate bazkideekin.

7. taula: Nazioartekotzeko zeharkako beste ekintza batzuk

Ekintza horiek guztiak garatzeko, unibertsitateek, alde batetik, 2023-2026 aldirako Euskal Unibertsitate Sistemaren Planetik datozen baliabideak dituzte. Plan horrek, "Nazioartekotzea + EBC Ardatza" izenekoan, nazioartekotzea sustatzen du, *IH* eta *IL* ikuspegi bikoitzetik. Zehazki, planak hartzen duen aldian ia 20 milioi euro finantzatu dira. Finantzaketa horrek esan nahi du ardatz horretan lehiakorra ez den finantzaketa publikoa % 162 handitu dela aurreko planarekin alderatuta.

Era berean, estrategia horrek beste ekintza berezi batzuk bultzatzea aurreikusten du, 2030era arte zehaztuko direnak. Berezi, 2027-2030 aldirako Unibertsitate Sistemaren hurrengo Planak ardatz horretan inbertitzeko ahalegina areagotu beharko du, adierazitako helburuak lortzeko.

6. BESTE UNIBERTSITATE- ETA IKERKETA-SISTEMA BATZUEKIKO LANKIDETZA POTENTZIALAK

Beste unibertsitate- eta ikerketa-sistema batzuek EUSen eskura jartzen dituzten lankidetzaukerak askotarikoak dira. *EBC 2025 Estrategiaren* esparruan estrategikotzat aitortutako herrialdeek ezaugarri eta aukera bakarrak dituzte, guztiak ere interes berezikoak EUSentzat. Hala ere, unibertsitate bakoitzak, bere nazioartekotze-estrategian oinarrituta, bere berezitasunetara eta espezializazio-arloetara hobekien egokitzen diren bazkideak identifikatu beharko ditu, eta, nolahi ere, 5. atalean zerrendatutakoekin lotutako ekintzak garatu beharko ditu.

Oro har, prestakuntzari dagokionez, bai Erresuma Batua, bai Latinoamerikako herrialdeak (Argentina, Txile eta Kolonia) dira egokienak *IH* eta *IL* garatzeko. Erresuma Batuko unibertsitateek harrera-zerbitzu oso garatuak dituzte, nazioarteko langileen integrazioa errazten dutenak. Gainera, unibertsitate horiek balizko bazkide estrategikoak dira titulazio

bikoitz eta bateratuak diseinatzeko, ingelesa komunikazio-hizkuntza dela. Aldiz, ikasleen, irakasleen eta TKAZPen bi norabideetako mugikortasuna eskuragarriagoa da Argentina, Txile eta Kolonia bezalako herrialdeetarantz, hizkuntzaren oztopoa ezabatzen baita: bai xede-herrialdeetan harrera egitea, bai nazioarteko langileak EUSen integratzea errazagoa izan daiteke kultura- eta hizkuntza-hurbilketari esker.

Bestalde, Europako iparraldeko herrialdeak dira ikerketari eta berrikuntza-inguruneei dagokien ezarpen posizionatuta daudenak. Izan ere, Danimarkak, Suediak eta Finlandiak, *EBC 2025 Estrategiaren* lehentasunezko geografietako hiruk, herrialde berritzaileen podiuma osatzen dute, *2023ko European Innovation Scoreboardaren* arabera. Horrela, EUSek herrialde horiekiko lankidetzan jarri beharko luke arreta, beren ikerketa-jarduerak garatzeko, ez bakarrik ikertzaileen mugikortasunari dagokionez, baita baterako ikerketa-taldekiko lankidetzari eta herrialde horietako langileentzako eskaintza sortzeari dagokionez ere.

Era berean, Frantziako eta Erresuma Batuko ikerketa-inguruneek ere herrialde horiekin lehentasunezko lankidetzak izateko gonbita egiten dute, bereziki Frantziarekin, eta, zehazki, Akitania Berria-Iparalde eskualdearekin, hurbiltasuna eta aurretiko lankidetzak direla eta.

Unibertsitatea + Enpresa + Gizartea eremuari dagokionez, Italiako (batez ere Lombardia eta Emilia-Romagna, herrialdearen iparraldean) eta Alemaniako (Bavaria eta Baden-Württemberg, herrialdearen hegoaldean) unibertsitate-inguruneak dira egokienak EUSekiko harreman estrategikoak planteatzeko. Italiako eta Alemaniako eskualde horiek, 4.5 atalean deskribatzen den bezala, unibertsitate- eta enpresa-inguruneen arteko loturagatik nabarmentzen dira, eta, besteak beste, titulazio dualak edo nazioarteko praktiken esperientziak planteatzeko ahalmena dute.

Era berean, Ipar Amerikako herrialdeek –Estatu Batuak, Kanada eta Mexiko– unibertsitateen eta enpresen arteko harremanari dagokionez ere gaitasun esanguratsuak dituzte. Hala ere, lankidetzak modu naturalagoan eta azkarragoan egin litezke Mexikorekin, berriz ere kultura eta hizkuntzaren hurbiltasunaren ondorioz; Estatu Batuetako eta Kanadako ekosistemak (adibidez, San Frantzisko Badiak, Massachusetts edo Quebec) lehen mailako aliatuak dira nazioarteko Unibertsitatea+Enpresa erlazioa lortzeko.

Eskualde eta bazkide estrategiko jakin batzuekin lankidetzan aritzeaz gain, EUSek lankidetzan jardun lezake jada ezarrita dauden nazioarteko unibertsitate-lankidetzako sareekin, 14. irudian azaltzen diren bezala:



14. irudia: Unibertsitateko Nazioarteko Lankidetzak Sareak

- **European Universities Alliances:** Europako Batzordearen ekimena antzeko ezaugarriak dituzten Europako unibertsitateen artean aliantzak sortzeko. Guztira 51 aliantza daude tartean dauden 450 unibertsitate ingururekin. Unibertsitate horien %40 inguru (192) Euskadirako herrialde estrategikoetakoak dira. Gaur egun, EUSeko hiru unibertsitateek ekimen horien aliantzetan parte hartzen dute: ENLIGHT, UNIC eta EU4dual.
- **European Consortium of Innovative Universities:** Europako unibertsitateen arteko aliantza, ikerketan, eredu kosortzaile eta berrikuntzakoetan eta komunitate irekietan oinarritua. 12 herrialdetako 14 unibertsitatek osatzen dute.
- **League of European Research Universities:** 12 herrialdetako 22 unibertsitatek osatutako aliantza; horien artean, *University of Cambridge*, *Lund University* eta 30 lantalde baino gehiago, bai ikerketakoak eta argitalpenak sortzekoak, bai elkarrengandik ikastekoak. Aliantzan parte hartzea aldizka ebaluatzen da, kide bakoitzak ikerketa-jarduera bateratuetan duen eraginaren arabera.
- **Coimbra Group Universities:** Europako diziplina anitzeko 40 unibertsitateren elkarte. Lantaldeen artean, nabarmentzekoak dira gizarte-zientzien, giza zientzien eta STEMen ikerketa, ikasleen eta doktoregaien mugikortasuna eta enplegarritasuna sustatzeko ekimenak.
- **Montevideo Taldeko Unibertsitate Elkarte:** Latinoamerikako 6 herrialdetako antzeko egitura akademikoak dituzten 41 unibertsitate publikoz osatuta dago. Helburu nagusiak honako hauek dira: goi-mailako giza baliabideen kopurua handitzea, unibertsitateen eta beste eragile batzuen arteko berrikuntza-prozesuak, unibertsitate-egituren kudeaketa optimizatzea eta etengabeko prestakuntza.
- **Graduondoko Unibertsitate Elkarte Iberoamerikarra:** UNESCOk aitortua, Iberoamerikan graduondoko eta doktoregoko ikasketak sustatzen dituen elkarte da.

Espainiako, Portugaleko, Latinoamerikako eta Karibeko goi-mailako hezkuntzako 270 erakunde inguruk osatzen dute.

- **Garapenerako Zientzia eta Teknologia Programa Iberoamerikarra:** herrialde iberoamerikarren zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-gaitasunak sustatzeko helburuarekin sortua. Programa honek 64 ikerketa-sare baino gehiago biltzen ditu, eta 1.851 erakundek eta 5.888 ikertzailek parte hartzen dute.
- **Association of Pacific Rim Universities:** Ozeano Barean kostaldea duten herrialdeetako 60 unibertsitatek osatutako taldea, Estatu Batuak, Kanada, Mexiko eta Txile barne, baita Ozeaniako beste herrialde batzuk eta Asiako ekialdea ere. Aliantzak ekonomia digitalean, biodibertsitatean, biztanleriaren zahartzean eta hirien jasangarritasunean oinarritzen ditu bere baliabideak, besteak beste.
- **Consortium for North American Higher Education Collaboration:** Estatu Batuak, Kanada eta Mexikoko 160 erakundek baino gehiagok osatutako partzuergoa. Hezkuntza-programak eta aukerak sortzea bilatzen du, eskualdeak dituen erronkei aurre egiteko. Aukera horien artean, ikasleen mugikortasuna eta *Networking* ekitaldiak aipagarriak dira.

Aliantza horien bidez, nazioarteko lankidetzarako aukera berriak horietan parte hartzen duten eragile guztietara zabaltzen dira.

Azken batean, lankidetzan aritzen diren herrialdeak, eskualdeak eta nazioarteko aliantzak askotarikoak dira. Testuinguru horretan, EUSEK modu proaktiboan hartu behar du bere gain kasu bakoitzera hobekien egokitzen diren bazkide estrategikoak bilatzeko erantzukizuna, eta nazioarteko posizionamendua hobetzen lagunduko dioten akordioak eraiki behar ditu.

7. PLANAREN GOBERNANTZA

Unibertsitateak + EBC Esparru Estrategia 2030ren gobernantzak hiru elementu ditu: euskal unibertsitate-sistemaren nazioartekotze-prozesuari laguntzea instituzioetatik, gobernantza-organoetatik eta estrategiaren kudeaketatik, eta, azkenik, ekintzen eta adierazleen jarraipen-sistema.

7.1. Eremu instituzionala/politikoa

Euskal erakundeek unibertsitate-sistemari ematen dioten babesa funtsezkoa da nazioartekotze-prozesuaren arrakasta eta jarraitutasuna maximizatzeko. Ildo horretan, EUSEK estrategia honetan proposatutako jarduera guztiei babes politiko eta instituzional nabarmena eman behar zaie.

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak unibertsitateen jardurekin eta euskal eragileen nazioartekotzearekin zerikusia duten sail guztien laguntza bermatu behar du. Bereziki

garrantzitsua da Hezkuntza Sailaren eta Europar Batasuna eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritzaren parte-hartzea. Bestalde, garrantzitsua da hiru lurralde historikoetako aldundien laguntza, baita sozietate publikoena eta EAEko beste erakunde garrantzitsu batzuen ere.


Laguntza hori jatorrian eman daiteke, hau da, unibertsitate-sistemak tokiko komunitatean (IL) gauzatzen dituen jardura guztietan, ekintzak definituz, horien berri emanez eta baliabide ekonomikoak mobilizatuz.

Era berean, nabarmendu behar da EAEko erakundeek beste geografia batzuetan ordezkari izatea, adibidez, garrantzitsua dela EUSen gaitasunak zabaltzeko eta EUSen posizionamendua hobetzeko. Hori dela eta, EAEk kanpoan dituen ordezkari zeregin proaktiboa izan behar dute EUS dagozkion geografietan posizionatzeko orduan, bazkide estrategikoak, sinergiak eta lankidetzako ekimen potentzialak identifikatuz.

Azkenik, ikuspegi operatibotik, beharrezkoa da EUS osoaren gaitasunak erakutsiko dituen dokumentazioa sortzea, bai EAEko atzerriko ordezkari zeregin unibertsitateek beren sustapen- eta bilaketa-jardueretan erabili ahal izan ditzaten.

7.2. Gobernantza-eredua

Estrategiaren gobernantza bi mailatan egituratzen da: koordinazio-organoak eta kudeaketa- eta jarraipen-organoak. 15. irudiak organo bakoitzaren osaera erakusten du:



15. irudia: Koordinazio-organoak eta Kudeaketa- eta jarraipen-organoak

Koordinazio-organoak honako talde hauek osatzen dituzte:

- *Hezkuntza Saila*: estrategia hau egiteaz eta jarraipena egiteaz arduratzen da, baita horrekin lotutako beste ekimen batzuek ere, hala nola 2023-2026 USP.

- *Euskadiko Unibertsitate Kontseilua*: EUS eta, zehazki, 2023-2026 USP koordinatzeko organoa. Hezkuntza Sailak ez ezik, EUSeko unibertsitateek eta euskal gizarteko beste eragile eta erakunde garrantzitsu batzuek ere osatzen dute: Foru Aldundiek, EUDELeK, etab.
- *Europar Batasuna eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza*: Lehendakaritzari Euskadiren Kanpo Harremanetarako estrategia politiko-instituzionala definitzeko eta zuzentzeko aholkularitza emateaz arduratzen da.
- *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua*: zientziarekin, teknologiarekin eta berrikuntzarekin lotutako politiken inguruan lider izateaz eta aholkatzeaz arduratzen da. Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek, EUSeko unibertsitateek, Ikerbasquek, Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziak, foru-aldundiek eta I+Gko inbertsio pribatuaren sektore eta enpresa bultzatzaileetako ordezkariak osatzen dute, besteak beste.

Bestalde, **kudeaketa eta jarraipen-organoak** honela daude egituratuta:

- *Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza*: 2023-2026 USParen definizioaren, koordinazioaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren arduraduna, maila operatiboan, eta estrategia honen sustatzailea.
- *Unibertsitateen nazioartekotze-batzordeak*: hiru batzordeetako bakoitza unibertsitateko Nazioartekotzeko Errektoreordetzako ordezkariak eta nazioartekotze-ekimenetan parte-hartze handia duten beste eragile batzuek osatzen dute.
- *Euskadiko atzerriko ordezkariak*: euskal ordezkariak osatzen dituzte. Zehazki, ordezkariak daude Europar Batasunean, Estatu Batuetan, Mexikon, Argentinan, Txile-Peru-Kolonbian eta Frantzian.

Kudeaketa eta jarraipen-organoei dagokienez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile jakin batzuek, EUSekin lankidetzan ari direnek, nazioartekotze-ekintzetan parte hartzeko aukera ere aurreikusten da.

7.3. Jarraipen-sistema

Unibertsitateak + EBC Esparru Estrategia 2030ren jarraipen-mekanismoak bi zati ditu: alde batetik, jarraipen-eragiketa bera, EUSen nazioartekotze-ekintzen garapena gainbegiratzeaz arduratzen dena, eta, bestetik, ekintza horien emaitzak ebaluatzeko adierazleak.

Jarraipen-operatiboari dagokionez, **2023-2026 USParen Jarraipen Batzordeen** bidez egitea planteatzen da. Horiek urteko hiru unetan antolatzen dira – urtearen hasieran, erdialdean eta amaieran –, eta aurreko urteko adierazleen emaitzak zehatz-mehatz neurtzeko balio dute, baita abian den urteko unibertsitateen kudeaketa-planen ekintzen aurrerapena baloratzeko ere. *UPS*

2023-2026-ren lehentasunezko ardatzetako bat "Unibertsitateak + EBC ardatza" dela kontuan hartuta, batzorde horiek oso espazio egokia dira estrategia honen jarraipena egiteko.

Osagarri gisa, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzak, hiru unibertsitateetako Nazioartekotze Errektoreordetzaren ordezkariak eta Europar Batasuna eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritzaren ordezkariak osatutako **Unibertsitatea+EBC Jarraipen Batzorde** berria sortzea proposatzen da. Batzorde hori unibertsitateen eta Euskadiko atzerriko ordezkariak arteko harremanetarako gunea izango da, eta lehentasunezko geografien jardueren jarraipen eraginkorragoa egiteko aukera emango du, baita jarduera berriak identifikatzeko eta abian jartzeko aukera ere.

Estrategiaren ebaluazioari dagokionez, emaitzen bilakaera adierazleen sistema baten bidez neurtuko da. Sistema horrek unibertsitateek aldizka ematen dituzten datuak bilduko ditu, 2023-2026 USParen esparruan. Adierazle horiek unibertsitate-mailan lortuko dira, eta EUSek nazioartekotzeari dagokionez izan duen bilakaeraren irudia izateko gehituko dira. Proposatutako adierazleak 8. taulan agertzen dira:



KOD	ADIERAZLEA	2022	2026	2030
PRESTAKUNTZA				
1.A	Nazioarteko mugikortasuneko esperientzian parte hartu duten ikasleen kopurua (gradua)	4.270	4.480	5.492
1.B	Nazioarteko mugikortasun-esperientziaren batean (gradua) parte hartu duten ikasleen ehunekoa	8,57%	8,68%	10,44%
2.A	Nazioarteko mugikortasuneko esperientzian parte hartu duten ikasleen kopurua (masterra)	234	340	503
2.B	Nazioarteko mugikortasuneko esperientziaren batean parte hartu duten ikasleen ehunekoa (masterra)	3,98%	5,55%	7,63%
3.A	Unibertsitateko nazioarteko ikasleen kopurua (matrikulatuta + <i>incoming</i>) (gradua)	EE	2.115	2.666
3.B	Unibertsitateko nazioarteko ikasleen % (matrikulatuta + <i>incoming</i>) (gradua)	EE	4,10%	5,07%
4.A	Unibertsitateko nazioarteko ikasleen kopurua (matrikulatuta + <i>incoming</i>) (masterra)	EE	335	547
4.B	Unibertsitateko nazioarteko ikasleen % (matrikulatuta + <i>incoming</i>) (masterra)	EE	5,48%	8,29%
5.A	Unibertsitateko nazioarteko ikasleen kopurua (matrikulatuta + <i>incoming</i>) (doktoregoa)	EE	42	52
5.B	Unibertsitateko nazioarteko ikasleen % (matrikulatuta + <i>incoming</i>) (doktoregoa)	EE	0,94%	1,73%
6	Titulazio bikoitzak eta bateratuak dituzten nazioarteko unibertsitate bazkideen kopurua	82	95	110
7	Ofizialak ez diren hizkuntzetan eskainitako ECTS-en ehunekoa, graduako titulazioetako ECTS-en guztizko kopuruarekiko	18,43%	20,41%	23,00%
8	Ofizialak ez diren hizkuntzetan eskainitako ECTS-en ehunekoa, masterreko titulazioen ECTS-en guztizko kopuruarekiko	21,29%	23,29%	26,40%
9	Gradu bikoitzeko eta nazioarteko baterako titulazioen kopurua (nazioarteko unibertsitateekin lankidetzan)	14	33	64
10	Master bikoitzen eta nazioarteko multzoen titulazioen kopurua (nazioarteko unibertsitateekin lankidetzan)	40	55	90
11	TKAZPen ehunekoa, hizkuntza ez-ofizialetan egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna eskatzen duten lanpostuetan (B2 maila edo handiagoa egiaztatuta)	29,69%	40,29%	44,89%



KOD	ADIERAZLEA	2022	2026	2030
IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA				
12	Euskal enpresen eta I+G unitateen partaidetzen kopurua unibertsitateko nazioarteko proiektuetako jardunaldi osoko 100 irakasle eta ikertzaile bakoitzeko	0,083	0,20	0,25
13.A	Nazioarteko koargitalpen zientifikoaren kopurua (Wos/Scopus)	2.517	2.860	3.115
13.B	Nazioarteko koargitalpen zientifikoaren ehunekoa (Scopus)	50,19%	44,73%	45,67%
14	Urtean lortutako Europako Ikerketa Kontseiluaren (ERC) laguntzen kopurua	1	4	10
15	Horizon Europe deialdietan (edo etorkizuneko programa baliokideetan) edo nazioarteko beste deialdi batzuetan lortutako itzulkina (M €)	2,2	16,41	18,88
16.A	Ofizialak ez diren hizkuntzetan egiaztatutako irakasle eta ikertzaileen kopurua (C1 maila edo handiagoa)	2.081	2.115	2.246
16.B	Ofizialak ez diren hizkuntzetan egiaztatutako irakasle eta ikertzaileen ehunekoa (C1 maila edo handiagoa)	36,13%	26,86%	27,89%
17.A	Nazioarteko aipamenarekin defendatutako tesien kopurua	220	238	272
17.B	Nazioarteko aipamenarekin defendatutako tesien ehunekoa	39,50%	43,22%	48,14%
18	Marie-Curie programatik jasotzen diren ikertzaileen kopurua (4 aste baino gehiago)	58	73	112
19	Nazioarteko ikertzaile bisitarien kopurua (4 aste baino gehiago)	165	197	354
20	Nazioarteko bazkideekin ikerketa-programetan parte hartzen duten irakasle eta ikertzaileen kopurua (4 aste baino gehiago)	EE	334	462
21	Euskadiko campusetan irakaskuntza-jardueretan parte hartzen duten nazioarteko irakasle eta ikertzaileen kopurua	EE	183	247
22	Unibertsitatean ikerketa-programetan parte hartzen duten nazioarteko irakasle eta ikertzaileen kopurua (4 aste baino gehiago)	EE	219	244
23	Atzerriko zentroetako (fisikoak zein birtualak) irakaskuntza-jardueretan inplikaturako unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen kopurua	EE	166	375
24	Nazioarteko unibertsitateekin ikerketa- edo irakaskuntza-jardueretan parte hartzen duten unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen ehunekoa, irakasle eta ikertzaileen guztizko kopuruarekiko	EE	13,5%	16,9%



KOD	ADIERAZLEA	2022	2026	2030
UNIBERTSITATEA + ENPRESA + GIZARTEA				
25	Unibertsitateak lankidetzan diharduen unibertsitateen eta nazioarteko beste erakunde batzuen kopurua (mugikortasun-programak, enpresetan praktikak egitea)	EE	1.765	2.193
26	Nazioarteko praktikak egiteko graduko edo masterreko ikasketetan OUT mugikortasuna egiten duten ikasleen kopurua	EE	460	746
27	Ibilbide dualaren barruan nazioarteko mugikortasuna eskatzen duten graduko edo masterreko ikasketetan OUT mugikortasuna egiten duten ikasleen kopurua	EE	96	161
28	I+Gn egindako gastua, finantzaketa-iturriaren arabera: nazioartekoa (M €)	13,3	18,39	23,20

8. taula: *Unibertsitateak + EBC Esparru Estrategia 2030ren adierazleak*

Horien bilakaera 2023-2026 USPan ezarritako helburu batzuen aurrean neurtuko da, eta strategiaren zenbait unetan haien bilakaera neurtzea eta ekintza zuzentzaile potentzialak identifikatzea ahalbidetuko dute.

ERANSKINAK

1. Eranskina. Akronimoen zerrenda

AKRONIMOA	IZEN OSOA
BERC	<i>Basque Excellence Research Centre</i>
BIM	<i>Basque International Masters</i>
EBC	<i>Euskadi Basque Country</i>
ECTS	<i>European Credit Transfer and Accumulation System</i>
ERC	<i>European Research Council</i>
ERIC	<i>European Research Infrastructure Consortium</i>
EUS	Euskal Unibertsitate Sistema
IH	<i>Internationalization at Home</i>
IIP	Irakaskuntza eta Ikerkuntzako Pertsonala
IKZ	Ikerketa Kooperatiboko Zentroa
IL	<i>Internationalization at Large</i>
MGLL	Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Laborategia
RIS3	<i>Research and Innovation Strategy for Smart Specialisation</i>
TKAZP	Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala
USP	Unibertsitate Sistemaren Plana
ZTBES	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea

2. Eranskina. Erreferentziako dokumentuak

Jarraian, estrategia honen garapena eta emaitzak optimizatzeko aztertu diren erreferentziako dokumentuak zerrendatzen dira:

- Europako Batzordea – Europako Hezkuntza Esparrua & Europako Ikerketa Esparrua;
- Europako Batzordea – Regional Innovation Scoreboard;
- Euroeskualdeko Unibertsitate Lankidetzarako Estrategia;
- Unibertsitate nazionalak eta nazioartekoak nazioartekotzeko estrategiak;
- Ikerbasqueren Estrategia2024;
- Nazioartekotzeko Esparru Estrategia – Euskadi Basque Country 2025;
- Unibertsitatea + Enpresa Estrategia 2022-2026;
- *European Higher Education Area*;
- *European Research Infrastructure Consortium (ERIC)*;

- LTC Sarea – Lankidetzarako mugaz gaindiko laborategien sarea;
- Hezkuntza Ministerioak eta Goi Mailako Hezkuntza Elkartek Lehenetasunezko Geografietan;
- Nazioartekotzeari buruzko informazio publikoko baliabideak;
- Unibertsitate Sistemaren Plana 2019-2022 eta Unibertsitate Sistemaren Plana 2023-2026;
- 2025eko Kanpo Ekintzako Plana;
- Euskampusen Plan Estrategikoa 2030;
- EUSeko unibertsitateen plan estrategikoak;
- Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP) 2030;
- Unibertsitateen nazioarteko rankingak: *QS World*, *THE Times Higher Education*, *Shanghai Ranking of World Universities*, etab.;
- Nazioarteko Unibertsitate Lankidetzako Sareak: *European Universities Alliances*, *European Consortium of Innovative Universities*, etab.;